

Bizkaitz



JUAN MANUEL ETXEBARRIA

JUAN MANUEL ETXEBARRIA

BIZKAITZ

IBAIZABAL

Egilea: Juan Manuel Etxebarria Ayesta
Eragilea: Fermin Iraolagoitia
Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz
Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ybarra, 1 - Deusto Bilbao
I. S. B. N.: 84-86399-19-X
Depósito Legal: BI - 2.607 - 90
Argitaratzailea: I. K. A., Euba. Tfnoa: 673 42 46
Argitaletxea: Ibaizabal - 258


HITZAURREA

Gaur egun euskal Herrian bizi garanok ez gara ez, lehena eta geroaren arteko zubia baino. Zenbat eta zubi hobek, hobeto alkartuko ditu egin be lehen-geroak.

Bizkaierak, uste dan baina eginen handiagoa dauka euki be zubi honetan, batek baino gehiagok, ez jakinez edo jakinez gainera euskubide hau ukatu gure badeu-tso be.

Aurreko liburu hau, esandako eginen horren baiez-tapen txiki bat baino ez dozu. Irakurri eta bizi egizu Bizkaitzen euskera bizi-bizia atzeko hiztegia lagun, eta zeuk esango dozu euskeraren etorkizuneko bata-sunean eginenik daukan ala ez euskeraren oinarrieta-riko bat izan dan eta lege-zorrez izan behar dauan betiko guztion Bizkaierak.

“Minbako arrana ugerratzatenyok”




gora!
laksu E rria
arenurr U rrundik
nokasleba S enidetasun

EUSKERA

alabazet A lkartasun
taztnona D anezkero
radn I turri
aro G ora

E
R
N
I
K

NAE NUSATAK S A N A I T A S U N E A N N
R G I B I D
Z T I A K Z I B I Z K A I T Z
O
L
E U S K A L E R R I A R E N A T E R P E A



BIZKAITZ

Bizkaitz, jaiokerarik bizi zan bere ama Herritz-en magaletan Auñamendiri eutsala.

Nebarreba asko ziran eta batzuk hara, beste batzuk hona, han ebilkuzan Auñamendiren ingurumarietatik bata baino bestea pozago, dana mendi, dana haran eta dana ibai dogun herri zoragarrian.

Oso bizkorra gendun Bizkaitz eta bere nebarrebak harona ebilzala, gizaldiak joan gizaldiak etorri, bera be, gitxiago izan ez egitearrrik, Herritz bere amaren ixilean, etxetik urten eta mendirik mendi, zelairik zelai, Gorbeia inguruko lurralde eder, polit eta aberats batera heldu zan. Liluragarria eta amesgarria zer zan ha lurrealdea! Esatea bat eta ikustea beste bat! Solo eta basoak ugariak besteko ederretik be pasatuak! Itxasaldea zoragarria baino be zoragarriagoa! Lurpea mehatzez betekoa! Berba baten edo behingo baten esateko, Benito Lertxundi labur geratu zan Bizkaia Maitea!

Haziz eta heziz joian gure Bizkaitz eta urteak joan urteak etorri, eta gizaldiak gizaldia dakarren naurrian, bere nortasuna hartzen joian eta gaubetik goizerra nebarrebetatik gazteenetarikoa izanik nagusi eta indartsuena egin jakun.

Lurra lantzen trebea baino trebeagoa zan, arrantzaz ezin hobea itxas ertz zein barruan eta hargin,

zurgin, ikatz, ola eta industriagintzan besterik ez la-
koa.

Bizdaztiak ez jakozan falta bere ingurutik eta garai
batean, Latinitz indartsua be hurreratu jakon.

Miruak harra baino lehenago ikusi euskun Bizkait-
zek kukuarraultzea bere habian eta mendi-haitz bitar-
teetatik sorots egiten eutsan.

Berehala konturatu zan konturatu be Latinitz ez
etorrela bera edo bere nebarreben atzean beren beregi
beste baten bila baino.


Dana dala, Latinitzek behar beharrezko zituen
gauzak beraganatu egin ebazan, solo-lurrak, mehat-
zak, egurra...

Gauzok bereganatu ahala, bide barriak be egin eus-
kuzan eta zubi ederrez bete gure erreka guztiak beste
gauza asko eta askoren artean.

Zuhurra zan izan be Bizkaitz eta Latinitzen aurka
joan beharrean, ahal izan eban guztia ikasi eban bera-
gandik, Latinitzengandik baeukan zer ikasirik euki be
eta.

Ikusi eta ikasi, lehen ondo bizi bazan, orain askoz
hobeto, akordatzakoan, Latinitzek mundu barri bat
ikusiaz eutsalako baina bere euskal nortasuna galdu
barik, Herrizt amaren Bizkaitz seme zintzoa izaten
jarraituz.

Baina mundu zabal honetan danerik dagola eta,
norberetzako mezederik ez eta aurrekoari kalte egite-
ko beti dagoanez baten bat, eta ezpabere, gogoratu
"zer jana lehenago faltako da zer esana baino" esaera



zaharra, gure Bizkaitz zintzo baina zuhurrari bekaizkeria eta ikusi ezina ez jakon falta bazterretan eta batez be euskaldun ez ziran dana-beharreko azagari-herrietan.

Pozik baino pozago bizi zan gure Bizkaitz, ondasuntsu eta osasuntsu, baina neguak joan neguak etorri, gauetan lorik egin ez egiten hasi jakun. Itxasaldean neguko ipar haizea gogorra izaten bazan, ez zan bat be bigunagoa Gorbeia aurrera heltzen hazi zan ha haize bildurgarria.

Amets astun bat zalakotan egoan eta bere edan bako hordi horretan egia izango ete zalazkoa alazkoa ez zalazkoa, azkenean egi bihurtu jakon.

Inoiz ikusi bako intzerrea lako haize hotz eta indartsu bat etorren Urduña ganetik behera edur bola bat lez geroago eta handiago, bideak betean, aurrerikara aurkitzen eban guztia zapaldu eta lorrintzen.

Bizkaitzek, ardilanazko jantziak eta nik ez dakit zenbat soineko jantzi ebazan, erara zein iruntzitara egozan pentsetako asti barik, baina halan eta guztiz ere hotzikeraz josirik ebilen behatzetatik kaskateraino, bildurkilik, berbaltuak urten eginik etorkizuna lainabera zarratu ilunean ikusten euskularik.

Ha zan zoritxarra! Bakean bizi, pozik bizi, aurrera egin gura norbere bidean eta ezin! Lur-itxasoetako bizibide ugari, emankor eta zabalak noiz galduko! Botatako izerdi guztiak norberetzat barik inorentzat! Ikusteko be ikusi holakorik! Gaztelitz, gaulendian, eguzkia sartzamendian ostandu baino ez zanean egin, hodei laino baltzez jantzirik eta trumoi hotsean sartu zan, aterik jo barik, Bizkaitzen etxean Bilbo aldeko arrate nagusitik.

Sartu bakarrik ez, bakean egoanari indarkeriaz agintzen hasi be bai bere etxea bailitzan, mantzin eta lotsabakoa halakoa!

Gure Bizkaitz gizajoa zorabiatu geunkan, ulertu ezinik, edan bako hordiaz gau eta egun.

Aurka egiteko be ez egoan Gaztelitzen indarra eta zapaldu beharra ikusirik.

Egunean baino egunean handiagoa zan Gaztelitz, eta Bizkaitzen etxeko tokirik ederrenetarikoakaz jabetzen hasi zan bat be kunprimentu barik.


Bizkaitzek ostera, hain ikusten eban latz eta baltz ikusi be ha egoera, txahur txikiak nagusiaren aurrean egiten dauan lez, gureztala, baina lur barru eta itxas ertzetako herritxuetarako bideetatik eragoion bere betiko nortasuna zein galdu.

Naruzko oinetako gogorrakaz ibili eta egin ahalak eginda be, Bizkaitzen uri-oinak gazteliztu eta indargatu egin ziran.

Euskal-zutik ibilteko ez zan gauza eta dana beharrean ibili ahal izateko baserri eta itxas makulu para hartu behar izan euzkun.

Oraindino, burua, bihotza, eskuak, garriz gorena dana eukan onik eta osoan. Ha zan bizigorea! Oinak, bernak, belaunburuak, zankalosteak, berba baten, garriz beherea zatika jausten, haragi bizian eta bizi egin gura! Zelan ez ba, bizia bat baino ez da eta!

Ixilean eta erdi ezkutaturik ebilen Bizkaitz hara eta hona eta urira joaten zanetan makuluak gorde eta garrizbeherea agirian ebilkun Gaztelitz haserretu ez egiteko.



Udabarriak joan udabarriak etorri, Martiko idergibete egun baten, nebarrekak ikusten joan jakun gure Bizkaitz Gaztelitzek emondako ukabilkada eta ostikadak ondorengo zauri zoldu hori-gorriak erakusteko asmoz.

Nebarrebak ikusi ahala, bera bestean edo askoz gitxiago barik egozala konturatu zan. Hurren bizi ziranak bere antzeko zauriekaz egozan. Badoa harago, hiparrerago, eta, non ikusten dituen hangoak be zauri zolduz josita, baina zoltzai hori-gorriak barik urdin-zuriak eukezala. Ha zan ikustea! Batzuei eta besteei, bitzuei emon eutsien negarrak.

Begi biak handituarterainoko negarraldia egin eta gero argi ikusi eben Herritz amari Gaztelitz eta Frantzitz-en harjoa agertu jakola eta heriotzarainorako izan ez arren heltzar arteko hartxarrak jo ebal.

Bizi gureak berezko indarrak dituela eta, belea baltzago ez dala egingo pentsatuz, Bizkaitz eta bere nebarrebak Herritz amaren betiko etxera joatea erabagi eben, han hor, hemendik sakabanaturik ibili arren, bihotzez bat sentitzen ziralako.

Alkartasuna zan euren bihotzetako indarra eta nebarreba arteko ezbardintarunak ez eutsien ezelango enberazurik egiten alkar ulertzeko.

Amak, joaneko eran, besoak zabalik hartzen eban zan mosuka eta laztan gozoz igurdiz.

Han ebilkozan amari bere seme-alabok bata baino bestea berbagurago eta gure Bizkaitzek amari ez era-goionean, alborikarako neba-arrebaren bati ekiten eutsan berbalotsean.

Han egoan Erronkalitz zaharra be, ulea zuri, aurpe-
gia ixurrez beterik eta makuloa kokotetik eskegita ia-
ia zutunik egoteko gauza ez dala, eta badinotso:

- Zelan dabil berori ba? Berorri berbarik egin ez
deutsadala urteak eta urteak izango dira izan be,
zer dinost ba berorrek?
- Hara, Bizkaitz ene anaia gazte, zu ere jin zra
kona! Kemen ez gaude hunki gaur egun gure
etsea arrotzez betea bait dugu, kau da kau zori-
gaitza! Nagi kona! Ni naz zore anaia zahar, ni naz
handi, zu zra ñotto. Zuk hunki erran tzu, aspal-
dian ez gra batera egon baina orai ene bihotza
anitz pozik da ekiaren disdirak heldu bait dra,
nagi kona leinik lein!

Erronkalitzegaz egineko berbaldia amaitu baino ez
eta horra hor non entzuten dauen Añañamendiren
gibelego beste bat eta badinotso Bizkaitzek:

- Zu ere hemendik urrun bakoren bat zaitut baina
ezingo neunke esan nor, lurralde honetako anaiok
antz handia dozue euki be eta!
- Ni, Zuberitz niz edo hobeki esanez Zuberitz
nüzü eta phoz handia eman deitazü urthe anitz
egon bait gira ikhusi gabe hanko eta hemenko
anaiok!
- Bai, halantxe da, —erantzun eutsan Bizkai-
tzek—, eta ikusi be egiten da gure berbaikune-
tan, baina pozik zer nago zuokaz guztiokaz! In-
darbarritu egin nazela esan leike, zer dan anaita-
suna! Ondo gogoan daukadaz oraindino, Zube-
ritz, zure horreek abesti politok be, zergaitik ez
deustazu holango politenetariko bat kantatzen?

—Khantatzea nahi düzü? Ba eginen dizüt ba, anaia oroer begira, entzun: "Txorittua, nurat hua bi hegalez airian..."

Bihotzak be ikara egin eutsien guztiei abesti eder hori entzutean, ete Bizkaitzi poz-negarrerainoko guztiak.

Lapurtitz be han egoan amari samatik helduta eta Bizkaitzen barrua asmatu edo badinotso:

—Hitz gozoak erran behar dauzkitzuk gure anaiak adorea eman bait dauku. Denok jin gare ama zaharren ikustera zeren eta hura gabe ezin bizi girade.

Bizkaitz, bere burutazioak barrutik eroan arren, pozik egoan sikera anaiekaz ondo aituten zalako eta hatan, non dinotson han amaren oboen-oboen ebilen Gipuzkitz anaia gaztetxuari:

—Hi, ikusten dok zelan konpontzen nazen beste anaia guztiekaz?

—Bai, bazekiat motel, —erantzun eutsan—, baina ni hobeki. Hik nik baino ahalegin gehiago egin behar dek heu aldendu haiz gehien eta.

—Zer dinostak? Nik neuk danena aituten joat eta ondo egin be, eta bihotz zabala nok guztiokaz baina hik heuk ez dok egingo ez ahaleginik nire neurea ulertzeko.

—Ahaleginak zertarako? Bizkaitz, hik ez duk balio, gaur beste bide bat hartu behar diaguk, ez al dakik?

— Hi, Gipuzkitz, heuk jakingo dok zer egiten dokan, mendiak ez dozak alkartuten baina pertsonak egin egin leitikoza gero! Historiak epaituko gaiozak!

Amak, ondo ulertzen ebazan ulertu be Bizkaitzen barrutikako berbak eta suari otea bota beharren seme-alaba guztiak laztanduz, "Aita zer egin duzu" abestiarri eragoion senitartekotasun samur bat lortuz euren samintasunaren barruan.

Besoak betean joan ziran nebarreba guztiak eta amak otsoak bererik jaten ez dauan lez, mosuz bete ebazan seme-alaba errukarriok.

Zelako giro ederra! Bizkaitz berbaz hasten zan bakoitzean irribarrez begiraten autsien danak, amaganik hasita, izan be auretatik gazteenetarikoa zan eta. Baina gaztea izan arren, zabalena eta aberatsena zala be baekianez, inork ez eutsan aurka txit erdi be esaten.

Berbaldi luzeak be luzeak egiten ebezan bitartean, negarraldiak be baltzak botaten euskuezan oinetako gaizoa ikustean. Baina atzera begiratu behar be ez dala eta, bakoitzak bereari eragotea pentsatu eta egin be egin euskuen, hots, alkarren aldakuntzak goitik behetik, Herritzen bidea jarraitu, bizirik eukiezan maku-luak lagun.

Gaztelitz eta Frantzitz geroago eta indartsuagoak egiten joiazan eta Herritz "utriusque ruentur" bat baino ez zan.

Egun baten, Herritz erdibitu egin euskuen hegoaldeaz Gaztelitz eta iparraldeaz Frantzitz jaubetuz.

Ha zan izatekoa! Geure-geure betiko herria erdibitu! Baina ez, odola ez, horixe ez, barrutik Herritz gendun, betiko Herritz.

Apurka-apurka, Gaztelitz eta Frantzitz, urietan ezeze, eskubideak kentzeari gitxi eritzita, baserri al-denduenetaraino be heldu ziran egunkari, aldizkari, irrati eta telebista ziriz baliatuz.

Herritzen seme-alabak odolak ur eginda egozan eta Gaztelitzen menpe bizi ziren Bizkaitz eta besteek, arteak be hartu ezinda, gerrea atera eben euren eskubideak berreskuratzeke.


Mendirik mendi, haranik haran, bidez bide, basoz baso defenditu euskuen Herritzen etxea.

Zer ikusi eta zer bizi behar izan eben gerra haretan eurek baino ez dakie! Gernikako pan-pen-pin-pon-PUNotsak lurra jota itxi ebazan gudariak eta gainetiko guztiak, baina BIZIRIK!

Bizkaitzek eta, azken berrogei urteak aieneka eta erdi narraz igaro ebezan baina, ixilean baino ez bazan ere, danak alkar hartu eta atzera begiratu be egin barik belea hain baltz ez ikusteraino heldu ziran.

San Juanak joan San Juanak etorri, mundu honetan betiko inor be ez dala eta, Bizkaitzen inguruetara askatasun eguzki epel bat heldu zan hegoaldeko bitargi batetik.

Eguzki epel hori ikusi ebenean Bizkaitzen nebarreba batzuk, amaren etxe zaharra berriztatzen hasi ziran Bizkaitzen etxeko harri landuzko ormarriak, haritzezko habe zindoak eta beste hainbat gauza baliagarri kontutan hartu barik.



Zenbat eta zenbat gauza eder eukazan Bizkaitzen etxeak amarena berriztatu, sendotu, osatu, aberastu eta etorkizunera bideratzeko! Baina alperrik.

Bizkaitzen bihotza mindu egin zan eta ez zan gitxia-gorako, bere nebarreba batzuen norberekeria, urike-ria eta erruki eza ikustean.

Bizkaitz ixiltzeko, etxe bakar bat bakarrik behar genduala esaten eutsoen beste guztiz jakitunek.

Ha zan berlarrialdia! Lehen zauriturik eta hilibiziko Gaztelizpean eta orain non? eta bihotzean bertan beste zauri sakon bat. Batitz amordekoaren ezpata zauria. Ai ze ezpata zorrotza!

Bizkaitz, lurra jota egoan, berba barik. Baina ahal eban lekutik indarrak ateraz badinotso Batitz itsutuari:

—Baina, baina, zerk izan behar jok honek? Zer darabilk? Nor haiz hi hori egiteko? Non jaozak beste guztien eritziak? Egin be egitea holakorik! Hau ez dok nire benetako ama, nire nebarrebena ere ez! Zer egin dok? Nor ekarri deuskuk amatzat? Nork esanda sortu dok amorde hori? Zertarako behar joaguk semeak ezagutzen ez joazan amarik edo semeak ezagutzen ez juen ama bat? Nik neuk bajaukat euki be neure benetako ama eta ez joat behar politika indarrez jantzitako amarik ez eta Herritz amaren titirikakoa ez danik. Amorde honek ez jaukak ez maitasunik ez nortasunik ez herrikoitasunik. Ulerkaitza dok, gogorra, bizitza bakoa, artifiziala, arima bakoa... Ez joat gura beste zapaltzailerik, Gaztelitzegaz jaukat nahikoa. Hik egin dok egitekoa! Hi heu izan-

go haiz Bizkaitz lehenengo eta gero Herritz guztiaren hondamendia!

Batitz erdi lausotuta geratu zan hain herri-indarezko berbak entzutean baina argikeriaz beterik ausarti gainetu jakon Bizkaitzi esanez:

—Bilerak bilera dira eta erabakiak erabaki. Botazioa egin da eta gehiengo gehiengo, eta kito! Batitz izango gara danok etorkizunean!

Gogor de gogor ikusten eban Bizkaitzek Batitz zorribiztua baina halan eta guztiz be, baten baino gehiagotan ahalegindu zan apaltasunez beterik Batitz harroari bere herri-arrazoiak azaltzen, baina alperrik, entzun eta gor egiten eutsan eta azkenean betikoa, munduan beti alperrik galtzen: itxasoko euria, urru-neko egun igerra eta pobrearen arrazoa!

Sarri pentsatu euskun Bizkaitzek dana bertanbera iztea baina berezkoak beti irauten dauala eta, nortasunez jarraitzeari emon eutsan bizi dan artean.

Batitz, bere aldetik, jo eta ke ebilen "Idatz eta Mintz" bikotx-siames banatuak barrero batzen. HandikeUS-KAL, hortikTZAIN, hemendikDI eta haragotikAAAAA... "Idatz" bikoitzetakoari zirujia estetika edo dana dalakoa egitea lortu eban Berridatz sortuz.

Gangartuta eragoion Batitzek Berridatz gora eta Berridatz behera mundurik aramaio batez be Bizkaitzen garriz beherako ingurumarietan zauri hori-gorriei plastikuzko narru gogor eta desegoki bat txertatzen.

Batitzek berak baino ez ekian zelango adabazinak bota eutsazan Bizkaitzi odol malauria dariola eukazan oin, hanka eta izterretara. Haik bai zirala plastadak!

Behatzetan "bazintzaizkigute", orpoetan "zintzaizkio-kete", bernetan "diezaizkiozuen", belaun buruetan "zenkizkiekete", izter mamietan "niezaizkizueke", zankal osteetan "iezaizkiezue"... eta plastadok hartu egian, a zelako benda-zapiak! zeintzuk? eta... "auskalo", "espresuki", "espero" eta batek badaki beste zenbat!

Hamarkada bat joan hamarkada bat etorri, Batitzek lortu eban Berridatzen herrikoitasun bako feturea, eta eskoletara eta, zabaldu ere bai.

Ibili eta ibili, ene! Zer? eta, Batitzek ez dau sortzen ba Bermintz bere aho-laborategian! Ai amatxua! "Mintz" zaharra oraindino bizirik eta Bermintz "jαιο" nogandik ez dakigula!

Min bako arrana ugerrak jaten daukala eta, Bizkaitzek heltzen deutso Batitzi gedar baten eta badinotso:

—Hi Batitz, zer darabistak? —eta hitanoari gitxi ereziten badeutsak, berorika be esango deuat— Zer darabist beorrek? Berridatzerako bakarrik hintzela eta orain Bermintz edo habeto esanda, sasi-Bermintz sortzeak ez deua lotsarik emoten? Nora hoa ahozkerak "GOODMORNING" itiko horregaz? Zer dala ta hasi haiz inongo hizkuntzak egiten ez dauana egiten? Zergaitik zapaldu dok Herritz eta bere barruan Bizkaitz? Esan eistazu! Esan heistak! Esan beist!... esan... esan... esan! Ez ete deutsak aspaldirik ezaguna dogun "panta rei" grekozko esaera famatuari atzekoz aurrera heldu gero! Ba... holan badok deskuiduan, lekutara garozak!

Ez eukan ez mihian harrik Batitzek ahora etorkon guztia esateko era honetara inotson:

— Lokalismoak itzi eta euskera bat bakarrik behar dugu, Batitz, hori bait da etorkizuneko bidea. Zu zaharkituta lotu zara eta modernizatu egin behar dugu, modernizatu, "H" eta guzti.

Bizkaitzek, bere apaltasunezko jokaeran onartu be egin ebazan Batitzen hainbat jokabide baina egunean eguneango ernegaldiekaz bihozturia be irakiten eukan kendu bako bihotz erreagaz.

Egun baten, Batitzen "Hiztegia 2000" be erosi euskun eta irakurri ahala, hango hangokeriaren hangokeriaz, tripaletarainokoak etorri jakozan.

Halako baten, odolak be ur egin jakozan "BERBA" ren atzean etorrena leidu ebanean. Ernegu-sartuaren ernegu-sartuaz, bota zorura hiztegi hori, hartu aita Lino Akesolorena eta ahotik bitsa dariola heldu eutsan Batitzi:

—Hi, kokorio, ganorabako hori! "BERBA" euskera dok, Latinitzenekoa baina Herriztua, dan-danok eza-gutu beharrekoa! Hik, bere orde "HITZA" darabilk, nik neuk bata zein bestea, biak. Itxaron heik, ez heik ahorik askatu, entzun heistak, beitu heik, hik hartu heik "HITZA" berbea eta nik neuk "BERBA" hitza eta goazan eurekandiko guztiak ikusten!

Hasi ziran hasi be biak bietara sinonimo-bideko haronakoa egiten. Bizkaitzek aurreak hartu eutsazan esanez:

—Aiko, aiko hemen "BERBA" eta aikomenzan gainteko guztiak "berbabako, berbatu, berbabi-de, berbadun, berba emon, berbaera, berbagozo, berbagura, berbaikera, berbaikune, berbajan, berbakizun, berbako, berbakuntza, berbalapiko,

berbalari, berbaldau, berbaldi, berbaleku, berbalots, berba merke, berbaro, berbarako, berbalatu, berbategi, berbati, berbaz, berberdi, berberdika, berbeta, berbetan, berbontzi, berbuts... "bakoitza bere esangura eta guzti. Hi nire ondoan zarama be ez haiz, baina aginpide "fantasma" hori lortu dok eta urritu baino ez dok egin Herritzen aberastasuna. Euskera batu behar badok, batu, baina ez edozein modutara. Orain arte Herritzek batu gaiolak, orain Batitzek banatu, heuk erantzun beharko dok etorkizunaren aurrean. Gu Herritzegaz zorrean gagozak eta gurasoak semeari dana zor deutzan lez, guk geuk be etorkizunera bideratu behar joaguk Herritzengandik hartutakoa. Bizitzaren joan-etorrian zeozer galtzea edo zaharkiturik geratzea bidezko dok, baina Herritzen hageak bajaukak eta euki be egin behar jok lekua etorkizunean. Horretarako ondo ezagutu behar dok dagoena eta hortixik jo aurrera zentzun bako tabula rasarik egin barik. Herritz ondo ezagutzen ez joanak zer proyekto edo proyekto ondoko egin leikek etorkizunerako? Heuk ikusiko dok! Egunen baten historiak berak epaituko hau, gero berandu izango dok baina, belu!

Bizkaitzen hodei astrapalak eta txirgorotsa entzutean, Batitzek en eban txif' erdi be atera, baina entzunik entzunda ere, azkenean betikoa, legera, erabakietara, erauetara... batek bajakik nora!

Artotzako zanpedarra lez, egunerik egunera joian zabaltzen Batitzen eremua eta hori bakarrik izan baltiz, tira, baina horrezaz gainera bere erruz Herritzen barruan menpeko konplejo bat sortu zen. Ez eban behar besterik Batitzek guztiz harrotzeko!

Handik, hortik, hemendik, Herritzengana Jaurlaritza sortzerainokoa heldu zan eta Batitz nasai jarri zan bere babesean.

Bizkaitzek be jo euskun Jaurlaritza horretara baina atzeko errokoari lez esne hondakinak baino ez eutsazan emon, ixilik eukiteko edo, batek badaki zertarako!

Batitz, dana zan papela dana konbokatoria, dana deialdia, dana azterketa eta dana tituloa.

Bizkaitzek, ahaleginak be egin ebazan beragandik hasi eta Batitz osotu batera heltzeko "Bizkaitzetik Batitzera" lemaz.


Denporak joan denporak etorri, Batitz bere soineko Berridatz eta Bermintz zabaltzen hasi zan titulitisko egadendak bitarteko zirala.

Asko eta asko sartu ziran egadendara eta hango soinekoak erosi be bai.

Bizkaitz aitearenka ebilen jaunekobean Batitzen gauzeztan jantzi petralak ikuskeran, eta baiñoan berekitan:

— "Hau dok izatekoa! Ni neu, denodu guztiekaz ibili Herritz etorkizunera bideratzen eta honek Batitz honek zergaitik itzi behar naiok deslai? Nik neuk sekula be ez joat egin ez eta egingo be holakorik! Baina, baina... ez dok konturatuten edo hobeto esanda ez jok ikusten soineko trapusorkion azpian ez daukala erdalitz-kortikea baino besterik? Jantzi be egitea erropok!"

Batitz arin joian, oso arin, arinegi Gaztelitzi atzerikara jarraitu gurean. Jarraitu bakarrik ez, bere mailara



heldu gura euskun eta horretarako Herritzen kaxa zahar baina bete-betetik behar zana atera beharrean, inon diran asmakizunak egiten eragoion geroago eta aldazgora handiagoak sortuz eta Gaztelitz aurberan iminiz.

Mundu guztiak ezagutzen eban Batitz eta ezagutzen ez ebenak be han ebilzan Batitz gora eta Batitz behera auzoko behiak esne gehiago emoten dauala pentsatuz, baina txakurrak haragoan be ortozik, Herritzek, bortzeizko zapatakaz ikusten baebazan be.

Ibilian-ibilian, Batitzek irratia eta telebiztan be egin euskun bere lekua.

Herritz, eta zertan esanik be ez Bizkaitz, ikaratuta egozan J. R. eta baltzak eta, euskeraz entzutean. Euskeraz bai, baina harrigarri bada ere, Gaztelitzen subtituluekaz konpondu behar.

Bizkaitzek ezin eban Batitzegaz, baina halan eta guztiz be, barru eta kanpo zauriz josita egon arren, bere mundu-bizitzako azken egunak, Bizkaitz, Herritzen seme zintzoa izaten jarraitu euskun.

Euskaltzainaldiak joan euskaltzainaldiak etorri, jaurlearitzaldiak joan jaurlearitzaldiak etorri, Batitzen batizkeriak hiltzen ez eutsan utzi ba Bizkaitz maiteari! Zer? eta, hiltzen utzi! Nork? eta, Batitzek! Bizkaitz, eleizako eta guztiekaz hil jakun, negarrez baina ba-kean.

Denporakarrenean, oinarri bako etxea jausi egiten dan lez, Batitz herriztubakoa bera be ia-ia indarga eta ezebezean geratu zan.

Bermintz, guztiz ixildu zan eta Berridatz titulu-paperetara mugatu. Gaztelitz egin zan jaun eta jabe.

Inglitzek be asko lagundu eutsan ekonomia munduan eta biak bietara, bata baino bestea handiago egitera heldu ziran.

Mendealdiak, gizaldialdiak eta altzoaldiak igaro eta gero, bizirik egoan azken euskaldun bakarrak, bere oinarri bila eragoion.

Liburutegirik liburutegi, zintaz zinta, bideoz bideo, ordenagailuz ordenagailu, mikrofilmz mikrofilm, danerik irakurri, entzun eta ikusteko aukera izan eban mikro-tresna polibalente baten.

Irakurriak irakurrita, entzunak entzunda eta ikusiak ikusita, lorik be egin ezinik, itaunots batek jo eutsan bere burua eta berekitan inoan azken arnases-tuetan eragoiolarik:

“—Bizkaitzerarterainokoak hainbeste iraun baeuskun, zergaitik Baitzek hain gitxi? Nork apurtu ete deusku Herritzen hagea? Nor da nor Bizkaitz zintzoari hiltzen uzteko? Bizkaitzetik Batitzerako bidea hartu izan balitz ez ete euskun denporeak agertuko edurra mendian? Hau egin izan balitz, hori egin baeben, haragokoa egin ez baeuskun... zer? Bizkaitzek zeozergaitik esango euskun min bako arrana ugerrak jaten dauala. Orain bai, orain argi dago, ondo baino hobeto dakust ikusi be, baina gureak egin jok: Balizko oleak burdinarik ez”.



Adabazin: Adabaki, erremiendu.
Aginpide: Manua, agintea.
Ahorik askatu: Berba egin.
Aieneka: Ai! ai! esaten.
Aiko: Hona hemen.
Aikomenzan: Hona hemen (plurala).
"Aitearenka": "Aitaren da semearen..." egitea jazoera berezi baten aurrean.
Aitu: Ulertu.
Akordatzakoan: akordu barik.
Alborikira: Albotik.
Aldazgora: Aurgora, aldapa.
Altoaldiak: Belaunaldiak.
Apurka-apurka: Pizkanaka-pizkanaka.
Arratea: Harrizko atea.
"Arteak hartu ezinda": Oso urduri, larri.
Astrapalak: Zarata handiak.
"Atzeko errokoa": Esaera dogu.
Abere batzuk erro txiki bat eukiten dabe errapean eta handik esnea edaten dauan umeak gitxiago irabasten dau eta merroagoa izaten da. Hortik esaera.
Atzerikara: Atze aldetik.
Aurrerikara: aurre aldetik.
Aurberea: Aldazberea.
Ausarti: Atrebidua.
Azagari: azeri, luki.
"Auzoko behiak esne gehiago": Esaera. Beti besteena hobea dala adierazteko erabilten da.
Badeustak: Badeustazu (zuka).
Bailitzan: Balitz lez.
Bajaukak: Badauka (zuka).
Baliagarri: Baliozko.
"Balizko oleak burdinarik ez": Gauzak egin barik utzi, eta gero, egin balira eta holakoak esaten diranean erabiltzen da.
Baltzak: Handiak, luzeak.
Batek bajakik: Batek badaki (zuka).
Baten bat: norbait.
Bazekiat: Badakit (zuka).

Beist: E(g) idazu (zuka)
"berorika"tik.
Bekaizkeria: ikusi ezina, indibia.
"Belea baltzago ez da egingo": Esaera zaharra. Gauzak txarto urteez gero esaera hau esaten da animatzeko.
Belu: Berandu.
Beorrek: Berorrek, goi tratamentua, "berorika".
"Berbabako... Berbutz": Aita lino Akesoloren hiztegian ikusi.
Berbaikunea: Berbaikera, hizkera.
Berbaldia: Berba asko.
Berbaltua: Berbartua, tartamutua.
Berbalotsa: Berba asko egiten.
Berbaz: Berbetan, hizketan.
Berba barik: Ixilik baina gaizoaz.
Berba gura: Berba egiteko gogoia.
Berehala: momentuan.
Berekitan: Berekauntan, bere buruari.
Beren beregi: hartantxe, espresuki.
Besoak betean: Besoak zabalik.
Biak bietara: Biak alkarren artean.
Bidazti: bidetik datorrena.
Bideak betean: asko ibiltea batetik bestera.
Bidezko: Legezko.
Bihotzerrea: Urdailako garraztasuna, ardorea.
Bihozturia: Urdaila-ahoa.
Bildurkilik: Bildur handiaz.
Bitargi: Laino bitarteko argi izpia.
Bitsa: Txu zuria.
Bitzuei: Batzuei eta besteei.
Bortzeizko: Narruzko zapatak, azpian tatxuela eta guztizkoak.
Dakus: Ikusten dot.
Dana beharrean: ozta-ozta.
Danerik: danetarik.
Darabilk: Darabilzu (zuka).
Darabist: Darabizu (zuka)
"berorika"tik.
Darabiztak: Darabiztazu (zuka).
Dariola: jausten.
Dauku: Deusku.

Dauskitzut: Deutsudaz.
 Degu: Dogu.
 Deitazu: Deustazu.
 Denodu: Adore, kemen.
 "Denporak agertuko dau edurra mendian": Esaera. Momentuan zeozer ilun egon arren, denporakarreanean argitu egiten dala.
 Denporakarreanean: Denpora asko pasatu eta gero.
 Deslai: Abandonaturik.
 Deua: Deutsu (zuka).
 Deuskuk: Deuskuzu (zuka).
 Deuat: Deutsut (zuka).
 Diaguk: Dogu (zuka).
 Dizüt: Deustsut.
 Dok: Da (zuka).
 Dok: Dozu (zuka).
 Dra: Dira.
 Düzü: Dozu.
 Ebilkun: Ibilten jakun.
 "Edan bako hordia": Zorabioa, esaera erara.
 Egitearrik: egitearren, egiteagaitik.
 Eleizakoak: Gure Jauna eta Azken-igortza emotea hil aurretuan.
 Emankor: Emotun, asko emoten dauana.
 Emon eutsan: Erabagi eban.
 Enberazua: Oztopoa, estorbua.
 Ene: Nire.
 "Entzun eta gor": Jaramonik edo kasurik be ez egitea.
 Eragoion: Ziharduen.
 Eragoion: Ekiten eutsan.
 Eragon: Jardun, ekin.
 Erdibitu: Zati bi egin.
 Erran: Esan.
 Ernegaldia: Arrabioa, haserre.
 Ernegu-sartua: Barruko arrabioa, gorrotoa.
 Erara: Josturak barrutik.
 Erran: Esan.
 Espero: Itxaron.
 Espresuki: Beren beregi.
 Eusten: Mantentzen, sostenitzen.


Eutsala: ikutzen, ondo-ondoan.
 Ezebezean: Ezer ere barik.
 Feturea: Itxurea, patxadaea.
 Gagozak: Gagoz (zuka).
 Gainetiko: Beste, gainontzeko.
 Gainetu: Abiatu bateri.
 Gaiozak: Gauz, gaitu (zuka).
 Gaizoa: Gaizotasuna.
 Gangartuta: Harrotuta.
 Ganorabako: Susterbako, patxadabako, feturabako.
 Garai: denpora.
 Gare: Gara.
 Garriz beherea: Garritik beherakoa.
 Garriz gorea: Garritik gorakoa.
 Gaulendia: Iluntzea, ilunabarra.
 Gauza: Kapaz, gai.
 Cedar baten: Zarataka.
 Gesu baten: Lasterrera, halako baten.
 Gibleko: Atzeko, osteko.
 Gira: Gara.
 Girade: Gara.
 Gizaldi: mende.
 Goazan: Goazen (zuka).
 Goitik-behetik: Gitxi gora behera.
 Gra: Gara.
 "Gurasoak semeari dana zor":
 Senitarteko esaera bat da.
 "Gureak egin jok": Esaera. Zereginik ez dagoanean esaten da.
 Gurezala: Gura barik.
 Haiz: Zara (zuka).
 Hagea: Ohitua.
 Haragi bizian: Haragia agirian.
 Hargin: harriak lantzen dituen.
 Harjoa: Harrak jo, sartu.
 Harona: hara eta hona.
 Haronakoa: Hara eta honakoa.
 Hartu egian: Hartzeko.
 Hau: Zaitu (zuka).
 Heik: Egizu (zuka).
 Heistak: E(g) idazu (zuka).
 Heltzar: Heri txarra, gaizo txarra.
 Hilbiziko: Erdi hilean.
 Hintzela: Zinala (Zuka).
 Hondakinak: Hondarrak.

Hondamendia: Perdizinoa.
 Hordia: Mozkorra.
 Hots: Hau da
 Hotzikarak: Gorputza hotz
 zirikadakaz.
 Hua: Zoaz (Zuka).
 Hunki: Ongi, ondo.
 Ibilian-ibilian: Ibili eta ibili.
 Imini: Ipini, ifini.
 Indarga: Indar barik.
 Indargatu: Indar barik geratu.
 "Idatz eta Mintz": Mikel Zarateren
 ipuin-alegi famatua.
 Idergi betea: Ilargia betea
 dagoanean.
 Ingurumari: inguru.
 Inoan: Esaten eban.
 Inon diran: ez dakit zelango...
 Intzerre: ihintz gaineko haize hotza.
 Iruntzitara: Josturak kanpotik.
 Itsutua: Arinegi dabilena.
 Ixurra: Tximurra.
 Jaozak: Dagoz (zuka).
 Jaukak: Dauka (zuka).
 "Jaunekobean": Parau barik.
 Jin: Etorri.
 Joaguk: Dogu (zuka).
 Jok: Dau (zuka).
 Joanak: Dauanak (zuka).
 Joaneko eran: Helduz batera.
 Joat: Dot (zuka).
 Joazan: Dauzan (zuka).
 "Jo eta ke": Esaera. Ekin eta ekin.
 Josita: Beterik.
 Juen: Daben (zuka).
 Kaskata: Burua.
 Kau: Hau.
 Kemen: Hemen.
 Kona: Hona.
 Kokorio: Lelo, ganorabako, artaburu.
 Kortikea: Zikinkeria, kostrea.
 Kunprimentu: Errespeto.
 Lagun: Laguntzaz.
 Lainabera: Lainoa behean
 dagoanean.
 Lausotuta: Ondo ikusi ezinik.


Leidu: Irakurri.
 Leikek: Leike (zuka).
 Leinik lein: Lehen baino lehen.
 Leitikozak: Leitekez (zuka).
 Liluragarri: ikusgarri.
 Lorrindu: apurtu, zapaldu, birrindu.
 Lotu: Geratu.
 Lurra jota: Bihozberaturik.
 Magaletan: altzoan, edo inguruan.
 Makulu: Makila.
 Mantzin: Gaiztoa, okerra.
 Mendeldiak: Mende asko.
 "Mihian harrik": Esaera zaharra.
 Hitz egiteko ez daukala ikararik.
 Min: Mihia.
 "Minbako arrana ugerrak jan":
 Berba egin behar danean ixilik
 egotea.
 Mirua: txori nagusi bat.
 "Miruak harra baino lehenago":
 Esaera zahar bat dogu. Miruak harra,
 mamarro edo txita bat ikusten
 dauanean, berehala abiatu eta
 arrapatzen dau. Hortik ba, esaera
 hau.
 "Munduan danerik dago": esaera lez
 erabiltzen da.
 "Mundurik aramaio": Esaera. Han,
 hor hemendik ibili.
 Nagi: Etorri.
 Naiok: Nau (zuka).
 Narraz: Arrastaka.
 Negarraldia: Negar asko.
 Niz: Naz.
 "Norberetzako mezederik ez eta
 aurrekoari kalte": esaera bat dogu.
 Nurat: Nora.
 Nüzü: Nauzu.
 Ñotto: Txikia.
 Oboen-oboan: Ingurutik bueltaka
 "Odolak ur egin". Esaera zaharra.
 Haserre, odolak berotuta.
 Odol malauria: Odol txarra, zoldua.
 Onik: Ondo.
 Oroer: Guztiei.
 Ostandu: Ezkutatu, estaldu.

Otsoak bererik jan ez: Odol-
maitasuma (esaera).
"Panta rei": Dana doa aldatzu.
(Grekozko esaera).
Petralak: Zatiak.
Sartzamendia: Horizontea.
Sekula: Inoiz.
Sorots egin: zelatan egin, bigilatu.
"Tabula rasa": Latinezko esaera.
Ezer ez balego lez hastea.
Titirikarakoa: Jaiokerarik hasitakoa.
Trapu-sorki: Trapu zaharkituak,
garbikuzirakoak.
Trebea: bizkorra, jakituna.
Tripalak: Tripetako minak.
Txertatu: Mentatu, injertatu.
Txirgorea: Euri-harria, abazuza.
Txit: Berba.
Txit erdi: Berba erdi.
Tzu: Dozu.
Ulerkaitza: Ulertzeko zaila.
Urritu: Eskastu.

Urten eginik: Urten beharrean.
"Utriusque ruentur": Alde bietatik
zirikatu, Jo. Latinezko esaera.
Zaharkitua: Zahartua.
Zaharkiturik: zahartuta.
Zaharraren: Zaharra (guk.-"ren"
barik).
Zanpedarra. Zain-bedarra (bedar
mota bat, zaintsua).
Zarama: Satsa, hondakin lohiak.
Zein galdu: Galduan be; galdu ez
egian; galtzen baeban be.
"Zer jana lehenago faltako da zer
esana baino": esaera zaharra.
Zindoa: Harjo bakoa.
Zoldu: Infektatu.
Zorabiatu: Mareatu.
Zore: Zure.
Zorribiztua: Handikeriaz harrotzen
dana.
Zorua: Zelaia, lurra, behea.
Zra: Zara.
Zuhurra: bizkorra.
Zurgin: egurra lantzen dauana.



A A A
E
G
U
S
O
K
A
L
O
Z
T
L
A
B
.
.
.



BALTZOLAKO SUGEA

Gernikako Arbolaren ingurumarietara gerrea etorri aurretxuko uda bero baten, Baltzolako Patxi eta bigarren ezkontzako Peru bere anaia gaztelo, gari ebagiten joan ziran eskuan igitaia eta gerrian basabehi-adar barruan zorroztarria ebelarik.

Denodu guztiaz eta ganoso heldu eutsien gari-ebagiteari eta batak baino bestek gogatsuago eragoioen eragon be arloan-arloan.

Garia ebagi ahala, zabal-zabal botaten euskuen sorura ondo sikatu eitean.

Goizean goizetik hasi ziran gari ebagiten, arri-kanpaiak jo baino lehen, eta hamarretakoa egiteko tertzioa heldu jakienean, aita eta erdiko anaia be soloratu ziran, batak korta-beharrak eta bestek ardi, ahuntz eta basabehietatik joan-etorri bat egin ondoren.

Eguzkia bero etorren etorri be eta laurak lauretara egurdartean bota eben ha garitza azkarria.

Eguerdiko bero beroan, etxera etorri, txoletkada ur batzukaz burua freskatu, bazkari iski bat egin eta bekanekotxu bat bota orduko, kiskor-kiskor eragoion galondoko galtzuak.

Peruk ez eukan bekaneko beharrizanik eta egurdi-osteko bero-beroan erantatu euskuzan beste guztiak esanez:

—Ia ba, mutilak! Ez dozue garia kiskor-kiskor asmetan ala? Arin ez bagoazak galburuak apurtuko jakuzak!

Beroa, kanikulea egiten eban egin be, baina, gari-beharretan atzerantza egin behar ez dala eta, etxeko guztiak joan ziran solora, batzuk eskutaginen eta beste batzuk mutxurak egiten gero metatuteko.

Gari-metak luze besteko zabalak egin ebezan eta arrasti erdirako ia-ia akaberan egozan.

Azkenengo metea egiten egozala, Peruk suge endemoniño bat ikusi eban metapera sartu guran eta badi-notso Patxiri:


—Hi, Patxi, sugea jagok hemen eta ezpia ateraten jaustak jaunekobean!

—Itxi hegiok baketan, —erantzun eutsan Patxik— joan daitela bere bidean, hori be Jaungoikoak egina dok eta!

Baina Peru, gaztea be bazan eta, arteak hartu ezinik egoan eta erantzun eutsan:

—Niri neuri zer jaustak ba, hil egin behar joat, tragau, honexegaz igitai honegaz eta kitu, suberik ez joaguk behar gure galondo honetan eta!

Esan eta egin! Hartzen dau igitia, jaurtin eta bu-ruan barik buztan puntan jo eban eta subea metapera sartu jakon, buztan-puntea ostera, meteari deutsal



geratu zan batera bestera salto-brinkoka euli, mandauli eta ezpadurdinak gainetu arte.

Patxik, Peruren fetxoria guztia ikusi eban meta gainetik eta esan eutsan ba ze:

— Hik ez daukak gauza onik be! Hi haz izateko esan txarrekoa! Errementatu egingo hendun lehenago nire neure esana egin baino! Hik ez deutsak entzun inoiz gure aititari musker, ogigazta eta subeakaz kontuz ibilteko?

— Nik neuk zer jakiat ba? —erantzun eutsan Peruk—. Hi oraindino be aitita-amamen txotxolokeriari begira hago ala?

— Txotxolokeriak? Hator, bai, bai, etorri hadi neugaz, goazan aititaren gana hor ereinozpean jakok gerizpetan zigarro bat egiten eta!

Azken metea amaituz batera, horra hor non doazen anaia biak aititaren gana eta badinotso Patxik:

— Aitita, berorrek sarri kontatu deuskuz antzinako kontuak han sugeteko supaztarrean baina honek gure Peru honek ez deustie jaramonik egin gura, oraintxe be sugea tragau gura izan dau. Kontatu beio hori muskerraren kontu hori!

— A! hori muskerraren hori? —inotsian aititak— oraitxe eta oraintxe be neure leurogeitaka urteokaz, uleak arteztu egiten jatazak muskerra izena entzunda bakarrik be!

Ba, beitik Peru! Gure amandre zanak esaten jauskuan ba, baten, Bariku-Santuz, atso bat joan zala labegurretan beresi batera. Han, hor, hemengo egur iga-

rrak batu, urretxa-palu bihurtu batez estu eta lepo-
bizkarrera altzatuz batera... ZAZZZ! ez jautsan ba
haginka heldu bernatik endemoniñozko muskertzar
batek

Aieneka baten hasi zoan ha atsoa, egur-abar kargea
bota sorbaldatik behera, hartu, eraz aurkitu eban harri
bat eta musker-joten hasi zoan. Baina muskerrak joago
eta gogorrago heltzen jautsan.

Halako baten, ezin gauzonik eginda, alauri baten,
etxerako bidea hartu joan.

Etxean ez jegoan inor, danak Bariku-Santuko eleiz-
kizunetik zoazan eta.

Orduan, hak atsoak berak be eleizarako bidea hartu
joan musker hori kaderatik dandarraz daroala.

Eleizara orduko, danak jegoazan kanpoan eta ha-
ren atsoaren alauriak eta tipirriak entzutean, auzo-
koak jaubetu egin zoazan eta abadeari eupada egin
zer, zan zer ez zan jakiteko.

On Damianek, magalotsean urten joan kanpora
sotana puntak bai zapaldu ez zapalduan eta badinot-
sak hari atsoari:

—Zer Jaungoiko jasoten jatana horreek alauriok
botateko gaurko egunez?

—Ba, beitu bei jauna, —erantzun jautsan berbaltu
eta guzti hak atsoak—, honantxe eta honantxe
heldu deuts kaderatik honek musker madarika-
tu honek eta ez deust itzi gura ezetatik be!

—Ba, alabatxua, —esan ei eutsan On Damia-
nek—, hik egin dona egitekoa, nik neuk ezin

donat ezer egin bedeinkatu baino besterik, baina hori musker hori soltatu gura badona zazpi herrikako kanpaiak jo behar dozana bakoitzean pater noster bat errezatuz, osterantzean hireak egin jona, aldeko hori ez dona parte onekoa eta!

Hako ha Kastrejanako zubiko neskea Marti-oilarra bila joan zoan moduan, hau atso hau be herririk herri joan zoan abadearen esana betetan.

Herrian herriango sakristau eta serora, danak je-goazan aitearenka kanpaiotsak entzutean baina ez jeukian ez atsoari itaunka ibili beharrik, kaderako muskerra, estarian barik, begien bistan jeukialako.


Zazpigarren herrira heldu zoanean, kanpaiotsagaz nahaste errezau joan azken pater noster eta haren muskerraren purruztadak gehiago egin jautsan kanpaiotsari berari be eta amorruez beterik egin behar izan joan alde atsoaren kaderatik.

Mutilak! ez pentsatu hau guzurra danik gero! Hau eta handiagoak be kontetan joazan gure amandrek. Kaderakoa kontau deuat baina beste baten, gizonezkoen bati samara saltu egin ei jautsan eta barruan sartu eta hak be kanpaiak jo behar, bestela...

Peru, entzunak entzunda be, berean egoan eta barrurikarako barrea ezpain barruan gorderik badino:

— Muskerrak ez dauka bata berenorik! Maixu bariak esan dauskunetik ez jako izan behar lehen-go bildurrik, gure eskolan batek baino gehiagok olgau ere egiten dau muskerrakaz.

Patxiri zer pentsatu emon eutsan Peruren erantzunak baina halan eta guztiz be, aititari aurreak harturik, badinotso:



— Hik nik baiko eskola gehiago dakik jakin be, nik neuk, egon nintzoan denpora apurrean, ez nioan holakorik ikasi be egin eta, baina kontuz, muskerak ez jakiat baina subeak bajaukak berenoa. Gure herrian bat baino gehiago hil be egin dok sugeak ahausigita. Eta gaisetiko kontuekaz be kontuz! ezpabere gogoratu hegik aldi bateko esaera: “Diranik ez da sinistu behar baina ez direnik be ez da esan behar”.

Santiaoetaraz gero, gariak jotordu dala eta, Santiago bezpera-bezperan jo ebezan gariok, zati batzuk larrainean mando bidez eta beste batzuk eskuz. Gero artzaz haizetu eta galgarauak zorroetan sartu, anegaka, errotara eroateko, han eho, eralgi eta urterako ogia eukiteko. Aititak, pazientzia guztiaz, hazitarako zorroa aukeratzen eban eta kamarako goitegian eskegi aurrerantzako.

Patxik eta, euren gari-joteak eta gaisetikoak egin ebezanean, Paulo defuntuaren alargunari lorra egin eutsen gari-beharrak egiten lagunduz herriko beste batzuekaz batera.

Gari urtea izan zan izan be ha urtea baina politika arloan urte gogorak etorkiozan gure Euskal herriari, eta batez be Bizkaitzen lurraldeari.

Euskal Gobernu sortu barri eta gerrea geroago eta hurrago. Bake bakean bizi zan herria zertan eztalako buruko minetan!

Baina ez egoan besterik aurrera egitea baino eta horregaitik sasoiaren egozan gizonak gudari eginik agertu ziran goizetik gaubera.

Patxi, bete betean sartu jakun gudaloztean eta Gorbeia ingurura bialdu eben. Patxik ezeze, bere guraso eta nebarreba gazteak be errefuxiatu egin behar izan eben Enkarterrietan euren betiko etxea deslai utziaz eta alkar barriro ikusiko diran jakin barik. Ha zan ezina!

Etorri zan gerra hori eta joan be egin zan baina a zelangotzea itxi euskun! handik heriotza, hortik etxeak apurtuta, handik gartzelea...!

Patxiren gudari-lana Bilbo ganeko Artxanda mendian amaitu zan. Hango hangotasun eta hangokeriaren erdian gure Patxi be ahozpez jausi zan bonba baten ondoriozko harri batek buru buruan joaz batera. Hiltzat bota eben.

Gauiluntzean tor-tor-tor agertu zan kaki koloreko automobil zahar bat, geratu eta ikatz zakuak balira lez botaten ebezan gorpuk auto ganera.

Patxigana heldu ziranean eta gora adi imini, bizirik egoala konturatu ziran. Orduan gudarien aurkako kapitan batek inoan:

— "Un tiro de gracia y al camión!".

Kapitan haren soldadu bat hurreratu be egin zan Patxigana pistolea eskuetan dauala. Patxik ezin eban zirkinik be egin baina heriotzaren aurrean negarrari emon eutsan begi biotatik.

Soldadua errukitu egin zan eta pistolea sakatu beharrean badinotso kapitanari:

— "Mi kapitan, éste está llorando".

—“Vale, vale, —erantzun eutsan kapitanak—, que le recoja la ambulancia!”.

Esan eta egin, zelango halango anbulantzia hori heldu zanean, hantxe sartu euskun gure Patxi eta Santander aldera dagoen Santoñako gartzelako botikina eraoan eben.

Konortera etorri zanean, Patxik, non egoanik be ez ekian baina bere ingurukoak ikustean, ez eban esanbe-harririk be.

Burruko odol malauriak eta gorputzeko odol-batuak joan jakozanean, botikinetik atera eta beste presoen artera eraoan eben bekokiak astun baino astunago eukiezan gartzelari bik.

Gartzelea bete beterik egoan eta euren artean eza-gunak eta lagunak be aurkitu ebazan gure Patxik. Bildur-sartu eginda egozan danak eta Patxi zertan esanik be ez.

Bazkaitorduan Artxandan batera ibilitako lagun bat jarri jakon Patxiri ondoan eta erdi ahopetik badi-notso:

—Hiltzat euki haut, ahozpez eta zirkinik egin barik geratu hintzan han Artxandan eta inondik eta inora be ez nioan pentsatuko bizirik urtengo hendunik!

—Nasai mutil, —erantzun eutsan Patxik—, ni neu be ez nok patxadaz akordetan harik eta “tiro de no se qué” entzun arte, orduxeon emon nieunt-san negarrari eta eskerrak harexeri, errukitu egin zoazan eta hemen niaok. Zuok zeuok zelan?

—Ba... gu frentean txarto baina hemen e... asko hobeto be ez, aurrerantzean ez dok beharko nik neuk esaterik, hik heuk ikusiko dok, baina zer egingo joaguk ba, bizia ez joaguk galdu eta, zezerk urtengo jok gero be!

Egunak joan egunak etorri, gauzak bardin, berba gogorrak, gosea, hotza... eta etxeko eta herrikoen barri barik.

Denporakarrenean kartak idazteko baimena agertu jakien baina zabalik, harantzakoak zein honantzakoak.

Patxik halako baten hartu eban etxeko barri, bai, han egozan lehengo etxean, erdi apurtuta itxi eben etxe konponduan biziten. Kartea On Damianek idatzi eban eta ez inoan beste munduko gauzarik badaezpada eta horrexegaitik heldu zan heldu be Patxiren eskuetara.

Patxik be erantzun eutsan karteari, zelango halango erderaz. Baina lehendik zuhurra bazan gartzeleak gehiago zuhurtu eban gure Patxi eta kartearen azkenera heldu zanean agurraz batera goraintzi gedarrez hasi zan:

—“Bueno, familia, que sigais bien; yo muy bien estoy aquí y buena comida nos dan, ropa también; trabajo mandar no nos mandan, pasear y hablar con los amigos nos dejan todos los días... bien estoy, bien... y para despedir un abrazo os mando y muchos saludos para los amigos Pedro Goseandía, Txomin Hotzakilik, José Beharrasko, Miren Berbarikeginezin y en especial a D. Damián Tratutxarra.”

Patxiren familiak karteak hartuz batera On Damianeri deitu eutsien leiduteko.

On Damianek laster ulertu ebazan azkeneko hitzak baina ez ebazan etxeakoak gehiago mindu gura eta "lagun guztiei goraintziak" berbakaz amaitzen zala karteak esan eutsien.

Patxiri luze be luze egiten jakozan gartzelako egunak eta gauetan denporaldiak emoten ebazan itxarrik beti eukalako etxe edo herriko gogoetaren bat. San Juan egunekoak negar eta guztiak egin erazo eutsazan. Ikusten egoala esan leikean auzoko Simon, San Juan goizeko inontzean, ortozik, era guztietako bedarrak batzen; arrasti inguruan, eguzkia sartzamandian noiz estalduko dagoala, zuzi lez galtzapoilak hartu eta soloak inguratzen "San Juan Bagilean" abestia abestuten, gerougar nagusiak egin eta azkenean bere gainetik saltu egiten eta... hor, hortxe ikusten eban bere burua etxeako eta auzokoen artean... baina dana amesa, itzarrik amesetan!

Hileak joan hileak etorri, gabon-jaiak be helduz egozan eta gartzeletakoak etxera botaten hasi ziran.

Patxiri be heldu jakon ha eguna. Gabon arrastia zan eta eguna laburra, gautu arin eta ez egoan etxera-bidea hartzeko be.

Baina han eukazan gauza apurrak hurrengo goizearako prest-prest itxi zakuto baten eta gartzelako kanpoaldeari oboen-oboen haronako bat emoten eragoion haize libre apur bat hartzekotan.

Pozaren pozaz, barreak be berez urtetan eutsan. Etxekoak eta herrikoak baino ez eukazan gogoan, ez zan gitxiagorako izan be!



Batagaz pentsatu, besteagaz pentsati, Peru anaia be etorri jakon gogora eta berak ako subeari galondoan egineko fetxoria.

Berba baten esanda, danak ikusten ebazan gabon gaubeko mahai inguruan eta bera han, akordatzako askatasunean sinestu ezinik.

Patxik, indar bako eguzkia sartzamendian noiz sartuko ikusi ebanean, azken gaba gartzelan egiteko joiala non agertzen jakon prakagorridun kaballero bat, aldi baten On Damiani gari-soloak bedeinkatzen goala agertu jakonalako bat eta badinotso:

— Zenbat baino gurago heunke Gabon gaba heure etxekeokaz egitea?

— Gura, gura, mundu dana baino gehiago —erantzun eutsan— baina hori ezin leitikek izan.

— Heuk gura badok bai.

— Gurako ez joat ba?

— Ba begiratu hegik, ez hegiok heure buruari buelta gehiago emon eta plantatu hadi apurrin neure lepo-bizkarrean eta deabruaren zuzian eroango haut egazkada baten, baina bidean ez heidak esan besterik "arre deabrua" baino, bestela hi-reak egin jok!

Patxi berehala konturatu zan ha ez zala parte onekoa baina ezetzik esateko be ez egoan eta badaezpada badinotso:

— Eta hi heu nor haz ba?

— Ni neu? Ba... akordetan haz ako behin baten han galondoan hire anaia Peruk egindako fetxoriaz? Ba aikomen hemen eskoiko eskuko hatzamar txikerra erdibituta. Hire anaiak buztana ebagi jautsan hari subeari, ba... hemen dok ezagun, neu nintzoan ha sugea. Ba, beitik, deskuiduan hi barik Peru izaten badok izan hire ordeko, harenak in joan. Hire orduko berbak ez joadaz ahaztu eta horrexegaitik eroan gura haut etxera bakean dagoanari bakean iztealangorik ez jagok eta.

Patxik, kanpotik ez bazirudien be, barrutik aitearenak eta beste ez dakit zenbat errezu egin ebazan zerk izan behar ete dauan pentsatuz.

Kaballero hori makurtu zan, igon eutsan Patxik lepo-bizkarrera eta han eroan eban sasi guztien gaintik eta laino guztien azpitik.

Iluntzea zan eta gitxi ikusteaz batera Patxik begiak itxi-itxi egin behar izan ebazan haren kaballeroaren gorabeherak ikustean botaka barrukoak guztiak bota beharrean egoalako.

Hak kaballeroak, halako baten badinotso bildurkilik eta lausotuta egoan Patxiri:

— Hi, Patxi, Dimako haitzak aurrerikara ikusten joadaz eta laster gozak Baltzolako koba-zuloko Harratera. Heldu heidak gogor ze orain egingo joadazan atzera-aurreak ez dozak harantza-horrrantzakoak.

Esan baeutsan ze, gizon-deabruak ekarzan gora behera eta atzera aurrerakaz bihotz-ikarak, gosunea eta nik neuk ez dakit zertzuk gehiago etorri jakozan be Patxiri aldera.

Baina jazoak jazota, halakoren baten plantatu ziran Baltzolako kobaren atakako harratean.

Patxi bildurkilik egoan, hotzikarak kendu ezinik, ia-ia guztiz lausoturik eta badinotso gizon-deabru horrek:

— Goazan horra kobara barrura, hor jagozak eta gure beste mutilok!

Patxi sartu, sartu zan baina sartuago eta bildurrago zan hango barruragoko sugarrak ikustean.

Hurreratu eta hurreratu, ikatz-txondor pilo bat ikusi euskun eta hankak dardar hasi jagozan.

Gizon-deabruak orduan, hain ikusten eban Patxi estu eta larri, badinotso:

— Ez hadi ikaratu ba mutil, ni heugaz niagoan bitartean ez daukak bildurtu beharrik. Eta hori bakarrik ez, ikusten dok hor okolu horretan jagoan artza, gaztaina-zurezko zumitzez egindako artza eder hori? Ba, urregorritz beterik jagok, bete beterik. Joan hadi eta hartu hegik guredana baina zaratotsik atera barik, bestela hireak egin jok!

Patxi gureak, era hoberik ez zala agertuko eta, ixilka-ixilka praka-boltzak, elastiku-zuloak eta kolko-rainoko guztiak bete ebazan.

Gizon-deabruak kobaren atakaraino lagundu eutsan Patxiri eta agur eta bijon daielagaz batera esan eutsan:

— Joan hadi etxera eta hire anaia Peruri hauxe garriko gorri hau emon hegiok, ez joat uste barrero egin jaustanalakorik egingo joanik.

Gabon eguna berez be laburra da eta, dagoeneko gaututa egoan Patxik etxera-bidea hartu orduko baina hango inguruko bide eta bide zidorrak ondo ekizanez behingobaten jo ebazan bere etxeko atearak.

Patxirenekoak, eskekoren bat zalakotan, zabaltan dautsie atea eta ene! zer Jaungoiko! gure Patxi da ba eta! Baina, baina, zelan? nondik? noiz? Aitearen eta semearen...! hator, hator barrura, gixajo errukarri hori!

Bata eta besteak, danak egozan sineztu ezinik han etxean gertatzen zanagaz.

Patxik, zehatz-zehatz kontatu eutsiezan etorreran gertatutako guztiak eta azkenean badinotso Peru anaiari:

— Hi Peru, ba, horrek gizon-deabru horrek, adikuna gogor eta haserre gorriaz emon jaustak hiretzako hauxe garriko gorri hau.

— Nik neuk zertarako behar joat ba hori garriko gorri hori —erantzun eutsan Peruk—, joan eta lotu hegiok horko etxe-aurreko oxorro edo mizpiru harjoari!

Patxik hori entzutean, hartu garriko hori eta mizpirurantz abiatu zan etxeko guztiak balkoi-bentanatatik sorots egiten eutselarik.

Mizpirua, harjoa izan arren alosa egoan, susterrak zindo baino zindoago eukazan eta oso emotuna zan.

Patxik eperdi inguruan lotu eutsan garrikoa hari mizpiruari eta hirugarren moropila emonaz batera... ZZZIIIZZZZTT...! ez dau ba mizpiruak suster eta guzti zuziria lez gorantz egiten!



Buruko uleak be arteztuta eukiezan eta bakea diruaz be pagetan ez dala eta, Patxiren aitak inoan:

—Goazan danok barrura, atea itxi eta errezatu jeguan errosarioa Gabon gaua Jaungoikoaren legean ospatuteko.

Agudo eta orpoetan ar barik sartu ziran danak be sutera eta supazter inguruan eragoien errosarioa errezetan.

Patxik be baeragoion errezuari baina ezin euskuzan kendu burutik jazo eta bizitako guztiak. Letanietan egozala, urregorriak etorri jakozan gogora eta garrikoaren fetxoria ikusi ondoren ez eban poztuten urregorri pilo horrek, ikaratu baino.

Errosarioa errezatu-akabatu ebenean Patxik, bere buruko uleak atzera eta aurrera astinduz badinotso aitari:

—Aita, zer deritzo beorreri honek urregorri pilo honek? Berorrek gorde egingo leukez ala barriri emongo leuzkioz zer horri, koba zuloko deabru horri?

—Ba, mutil, erantzun eutsan—, ni neu be arteak hartu ezinik niagok, zergaitik ez deutzazak eroaten On Damian parrokoari eta bake bat!

Patxik, aitari haritik heldurik, hartu urregorriok morral baten, ohitura zan lez aitearen bat egin etxetik urtekeran eta santiamen baten ate-joten geunkan On Damianen etxean.

Seroreak zabaldu eutsan atea eta parrokoak besarkada bat emon eutsan ikusiaz batera esanaz.

— Zerk hakar ba tertzio honetan hona, nigana?

— Ba, jauna, honantxe ata honantxe etxeratu naz eta hauxe eta hauxe pasatu jataz. Beitsoz urregorriok eta Jaungoikoak gura dauana izan daitela!

On Damianek hartu eutsazan urregorriok eta Patxiri kendu jakon barruko moropila.

Etxerantz joiala, basajaunen alauriak eta Anbotoko Señorearen garrotsak eta guzti ikusi ebazan bidean baina ez eukan jaramonik egiteko astirik ez gogorik.

Etxera heldu zanean, aitak ere, arnasa sakon hartu euskun eta danak bakean ikustean badinotse:

— Gabon-afariagaz hasi baino lehen, gure aita defuntuaren biziz egiten gendun lez aurten begorosti-enbor bat bota behar dogu surtera urtebarrietarako amatau barik egin daiskun gero bere iduriak solorik solo zabaltzeko lurraren onuragarri.

Patxiren aitak suari jaramon egiten eutsan bitartean besteak nahai iminten hasi ziran.

Afaldu, gozo afaldu euskuen, danerik janik, orio-aza, karakolak, makailo errea, gaztaina erre-egosiak, sagar erreak laurkinduta, gozo apur batzuk urretxaintxaurrekaz batera eta guzti hori ehoteko txurrunplinplanak gura danean... baina ohiturak ohitura, aitak, bere aita defuntuak lez, ogia ebagikeran kurutzte bat egin eta gero lehenengo kuzkurra txakur amorra-tuarentzat gorde eban mantelpean.

Danak geunkazan poz pozik mahai inguruan eta handik txurruplin eta hortik kantaldia ez eben behar suari egur gehiagorik botaterik hotza kentzeko.

Peru gaztea be, berotxu geunkan, papu biak gorri-gorri eginda eta gazteak gaztean kontuak... badinotso Patxiri:

—Hi Patxi, aurten be Gabonzarreko gauberdian kirtenkeriaren bat edo beste egin beharko joaguk ez dok? Latak atera, bedar metak apurtu, gurdia arboletatik eskegi edo holango zeozer, zer dinostak?

—Zer esango deuat ba —erantzun eutsan—, nik neuk ez jaukat horretarako humorerik, horreek kontuok zuontzako gazteontzako, baina kontuz! lehengo ohituretan pasadizua emoten jakian honei kontuoi baina gaur lepora gainetu leitiko-zak gero!

Orduak aurrera joiazan eta goizalderantz oheratuz joakuzan gazteenak karta-jokoan itxita.

Gabonak joan ziran eta Urtebarria heldu be bai. Patxik laster ahaztu euskuzan azken aldiko neke eta bihozberak.

Aurrera egin behar zan eta aurrera egin eben belea baltzago ez dala egiten ondo gogoan harturik.

Egiak egi eta kontuak kontu, urteekarrenean be, zaharren esatetatik eta, dakigu jakin be, hareek, zera, Patxiren urregorriak gastatu arte, Baltzolakoek ez eukiela San Pedro-eleizako domeka-meza nagusiak eta hamarrenak ordaindu beharrik.

Gaur egun be, egia dala zein ez dala, Baltzolako su-gearena, ezagutuko ez dau ba gure herriak! Eta sines-
tu?... Batek badaki!

Urak handi itsasoan
zuhaitz ugari basoan
euskal ohiturak zein sineskerak
bizirik Herri osoan.



Adikuna: Begirada.
Agudo: Arin.
Ahausigita: Haginka eginda.
Ahopetik: Ixil ixilik.
Ahozpez: Tripaz behera, ahoz
behera.
Aikomen: Hona hemen.
Aitearenka: Aitarean, Semearen...
egiten harriturik.
Ako: Behinolako.
Akordatzako: Akordubako.
Alauri: Aho-zaratak baina handiak.
Alauria: Zarata handia.
Aldera: Gainera.
Aloso: Dezentea.
Amandre: Amama, amona.
Amatau: Sua hil.
Anega: 56,9 kiloko neurri bat
(Herrialdeka aldakor gertatu
daiteke).
Apurrin: Lepo-bizkarrean.
Arrasti: Arratsalde.
Arri-kanpaiak: Albakoak edo
egunsentiarekin batera joten diranak.
Arteak hartu: Nasaitu, trankilizatu.
Artza: Galgarauak astinduz garia
garbitzeko tresna. Zurezkoa.
Asmetan: Entzuten.

Astindu: Batera eta bestera egin...
Ataka: Atea.
Atzea: Ondorioak.
Aurrerikara: Aurre aldetik.
Azkarria: Asko, handia.
Badok: Badozu (zuka).
Badok: Bada (zuka).
Badona: Badozu (zuka) femeninoa.
Bagozak: Bagoaz (zuka).
Bajaukak: Badauka (zuka).
Barrurikarakoa: Barrutik datorkiona.
Batek badaki: Auskalo.
Behingobaten: Arin-arin.
Bei: Egizu (zuka) (berorikatik).
Beio: Egiozu (zuka) (Berorikatik).
Beitik: Begiratu egizu (zuka).
Beitsoz: Eutsiz (zuka), hartu egizuz
(zuka) (berorikatik).
Bekaneke: Siesta txikia.
Belea baltzago ez da egingo: Esaera:
Gauzak txarrago ez dirala joango.
Beorreri: Berorika tratamentua: Zuri
(zuka).
Berbaltu: Tartamutua.
Bereala: Atoan, momentuan.
Beresi: Arbola eta guztizko berezko
begetazioa.
Berorrek: (Berorika tratamentua).

Beste mutilok: Deabruok, parte txarrekoak.
Bide-zidorrak: Basabide estuak.
Bihozberak: Tristurak, desalimuak.
Bijon daiela: Esaera: Bija on bat egin daiala!
Bildur-sartu: Bildurra barruraino sartuta, bildur handia.
Bildurkilik: Bildurrez beterik.
Bota: Ebagi.
Botaka: Barrukoak botaten, errebesetan.
Dakik: Dakizu (zuka).
Daukak: Daukazu (zuka).
Deabruaren zuzian: Arin be arin.
Denodu: Indarra, kemena, bizkortasuna.
Denporakarreanean: Denpora asko pasatuta gero.
Denporaldiak: Denpora asko.
Deslai: Abandonaturik.
Deuat: Deutsut (zuka).
Deutsak: Deutsazu (zuka).
Deutsala: Ikutzen, erantsita.
Deutsazak: Deutsazuz (zuka).
Dok: Da (zuka).
Dona: Dozu (zuka) femeninoa.
Donat: Deutsut (zuku) femeninoa.
Dozak: Dozuz (zuka).
Dozana: Dozuz (zuka) femeninoa.
Egineko: Egindako.
Egurdartean: Eguerdi aurrean.
Eitean: -teko.
Elastiku: Soineko bat: Jake edo txamarra antzekoa.
Eleizkizuna: Eleizgan egiten diran ekitaldiak.
Emotuna: Asko emoten dauana.
Endemoniño: Handi-handia, ikaragarria.
Eragoion: Ekiten eutsan.
Erantatu: Mobidu, espabilatu.
Eraz: Ondoan, errezt hartzekoa.
Errezu: Otoitz.
Esan txarrekoa: Esana egiten ez dauana.


Eskeko: Eskale.
Eskuta: Esku bien barruan hartzen dan besteko gari-pilola.
Estarian: Agirian ez dagona.
Ezagun: Ikusten da.
Ezetatik: Ezergaitik.
Ezpadurninak: Gaztelera zko "tábano".
Ezpia: Sugearen mihia.
Fetxoria: Egitadea.
Frentean: gerra denporan borrokan aurre aldean.
Gainetiko: Gainontzeko.
Gainetu: Norberagana etorri jotera edo...
Galburua: Gari burua.
Galondo: Garia egoneko soloa.
Galtzapoila: Eskuta-garia garanduta.
Ganoso: Gogoz.
Gauberdian: Gaubeko hamabietan.
Gautu: Gaua heldu.
Gazteloa: Gaztea.
Gedarrez: Zarataka.
Goazan: Goazen (zuka).
Goitegian: Baserrietako kamaretako goi aldean.
Goraintziak: Eskuminak, saludoak.
Gorpuak: Gorputz hilak.
Gosunea: Estarrian egiten dan haize bola bat.
Gozak: Gara (zuka).
Guredana: Nahi dan guztia.
Hadi: Zaitzez (zuka).
Hago: Zagoz (zuka).
Hakar: Zaka(r)z (zuka).
(H)ako: Behinolako.
Hamarrenak: Antzinako zergak edo inpuestuak.
Hamarretakoa: Hamarran inguruan egiten zan jan-iskia.
Harantza-horrantzakok:
Esamoldea: Ez dala txantxetakoa.
Haritik heldu: Esanari heldu.
Harjoa: Harrak jo dauana.
Haronako: Hara eta honako.
Harratea: Harri atea.

Haserre gorria: Haserre handia.
Hator: Etorri zaitez (zuka).
Haut: Zaitut (zuka).
Haz: Zara (zuka).
Hazitarako: Aurrerantzean ereiteko hazia.
Hegik: Egizu (zuka).
Hegiok: Egiozu (zuka).
Heidak: Egidazu (zuka).
Helduz egon: Heltzen egon.
Hendun: Zendun (zuka).
Hendunik: Zendunik (zuka).
Heunke: Zeunke (zuka).
Hintzan: Zinan (zuka).
Hireak egin jok: Esaera. Hil egingo dala edo dauela.
Iduriak: Surteko hautsak.
Igarra: Sikua.
Igitai: Bedarra eta ebagiteko tresna.
Iluntzea: Ilunabarra.
Imini: Ipini, ifini.
Ingurumari: Inguru.
Inoan: Esaten eban.
Inontza: Goizetako zelai hezoa.
Inotsian: Esaten eutsien (zuka).
Iski: Apur bat, zerbais.
Jagoan: Dagoan (zuka).
Jagok: Dago (zuka).
Jagozak: Dagoz (zuka).
Jakian: Jakien (zuka).
Jakiat: Dakit (zuka).
Jakuzak: Jakuz (zuka).
Jatana: Jatzu (zuka) femeninoa.
Jatazak: Jataz (zuka).
Jaukat: Daukat (zuka).
Jaunekobean: (Esaera) Jo eta ke, ekin eta ekin...
Jaurti: Bota.
Jauskuan: Euskun (zuka).
Jaustak: Deust (zuka).
Jautsan: Eutsan (zuka).
Jegoan: Egoan (zuka).
Jegoazan: Egozan (zuka).
Jeguan: Dagigun (zuka).
Jeukialako: Eukielako (zuka).
Jeukian: Eukien (zuka).

Joadaz: Dodaz (zuka).
Joaguk: Dogu (zuka).
Joan: Eban (zuka).
Joanik: Dauanik (zuka).
Joat: Dot (zuka).
Joazan: Ebazan (zuka).
Jok: Dau (zuka).
Jostan/jaustan: Eustan (zuka).
Jotordu: Joteko ordua edo garaia.
Kanikula: Bero handi-handia.
Kastrejanako zubia: Mitologiako ipuin famatua.
Kirtinkeria: Astakeria.
Konortea: Konozimentua.
Kuzkurra: Ertzeko sati bat.
Labegurra: Laberako egurra, labesua egiteko.
Larraine: Etxe aurreko harri-losazko ingurunea.
Lata: Solo hesituetara sartzeko ate antzerakoa.
Laurkindu: Lau zati egin.
Lausotuta: Ondo ikusten ez dala.
Leidu: Irakurri.
Leitikek: Leitike (zuka).
Leitikoak: Leitekez (zuka).
Letaniak: Errosario barruko zati bat: Santu-otoitza.
Lorra: Laguntza-gisa lanak egitea.
Lotu: Estu.
Madarikatua: Txar, mantzin...
Magalotsean: Sotanearen zaratak.
Malauriak: Odol txarrak edo zolduak.
Metatu: Metak egin.
Meza nagusiak: Organu eta guzti abestu egiten ziran mezak.
Morrak: Zakutoa.
Mutxura: Eskuta batzukak meta txikiak egin.
Niagoan: Nagoan (zuka).
Niagok: Nago (zuka).
Niaok: Nago (zuka).
Nieutsan: Neutsan (zuka).
Nintzoan: Nintzan (zuka).
Nioan: Neban (zuka).

Nok: Naz (zuka).
Oboen: Bueltan-bueltan.
Odol batuak: Golpe osteko odol iluneak.
Okolu: Bazter.
Ondo gogoan: Oso gogoan.
Orpoetan ar barik: Oso arin.
Ortozik: Oinetan ezer ere barik.
Oxorro: Mizpiru.
Parte onekoa: Kalterik egiten ez dauana.
Pasadizua: Onartu, pasoa emon.
Pater noster: Aita gurea otoitza.
Plantatu: Heldu.
Purrutzadak: Ezpainotsezko aho zaratak.
Santiagotaraz gero: Santiagoetara heltzerakoan.
Santiamen baten: Atoan, momentuan.
Sartzamendian: Horizontean.
Sasoian: Adin onean, garai onean...
Serora: Abadearen etxeko andrea.
Sorots egin: Bigilatu.
Sorura: Lurrera, zelaira.
Sotana: Abadearen jantzi baltza.

Sugete: Sukaldea.
Supazter: Behe-suaren ingurua.
Susterra: Sustraia.
Tertzio: Garaia, sasoa, ordua.
Tipirriak: Artegatasun edo urduritasunak.
Tragau: Hil (animalien kasuan).
Txoleta: Metalezko ontzi bat edateko edo...
Txurrunplinplanak: Edabeak.
Urteakarrenean: Urte asko igaro eta gero.
Zer Jaungoiko!: Esaera: Zer da hau!
Zigarro bat egin: Zigarroa erre edo atsedena hartu.
Zindo: Ustela ez dana.
Zirkirik: Mogimenturik.
Zoan: Zan (zuka).
Zoazan: Ziran (zuka).
Zorroztarria: Zorroztuteko harri berezia.
Zumitz: Otzara, artza eta zaranak egiteko egur mehe landuak.
Zurezko: Egurrezko.
Zuzi: Antortxa.



GARBITXU BIZKAITZ-ENEAN

Eguzkia bero, lar bero, beroegi, ez dakit ba... denbo-
ra honek... jummm...!

Hara han Gorbea mendiaren gailurrean hodei laino
sendia, danak zuriz jantzirik: aitite.amamak, seme-
alabak eta beste senide guztiak.

Zaharrago edo gazteago, danak adin bardinekoak
direla dirudi. Zelango mendi zuri eta ikusgarria gure
Gorbeia mendiaren gainean!

Handik dator hitzotsa! Dana berbea eta irrintzia!
Zerk izan behar ete dau?

Danak dira gazteak, danak arinak, danak aidean,
danak bat... baina noiz arte?

Handik lasterrera, hodei-laino zuri, eder eta handia
eguzkiaren aurrean jarri da eta eguzkia haserretu egin
jako zuria izan dan hodei-lainoa ilun eta baltz bihur-
turik.

Hango zarata eta berbalotsa! Zer jazo da! —batak—
. Nora goaz? —besteak—. Non gagoz? —haragokoak—
. Loditu egin gara! —honagokoak—. Jausi egin behar
dot! —gehienak— ...ene! ai! ji! ja! uuu!

—Ez ikaratu! —dino lainamak—. Bizkaia gainean
gagoz!

—Bizkaian? Zein tokitan? —dino baten batek.

—Nerbion eta Ibaizabal ibaien artean gagoz eta Bilborantz garoaz haize epel laztangarri honek.

—Ze ondo! Ze polita da Euskal Lurra! Ze lur garbi eta berdea! Bilbora goaz orduan?

—Bai baina ez dot uste helduko garanik, lodiegi egin gara eta haize honi eskerrak gagoz oraindino aidean.

Haizea geratu egin da eta beste hodei-laino bidazki batzuekin alkartu gara. Iluntzen doa eguna! Zelango bildurra! Gainetik argi, azpitik ilun...!

—Nortzuk ete dira ba inguratu jakuzanok? —dinoe batzuk—. Iluntasun honetan ez dogu ezer ikusten. Asko garala begien bistan dago... Hau da beroa eta inguru hezoa!


Halakoren baten: Txissst, txisst... txissst... brum... brum... brummm... bum... um... m...!

—Ai! Zer izan da hau, bizkar hazurra erre eginik eta belarriak gorturik itxi deustazan hau? Hor behean zer esango ete deuskue?

—Ezer ere ez! —dino norbaitek—. Gu baserritarren lagun handiak gara, nahiz eta batzuetan... geureak egin!

—Ai! ai! ai! Jausi behar dot! Nik neuk ere! Ekarri eskua!

Ai ama! Zorabioa heldu jaku! Edan bako hordia! Ai ene!



JESSE-80

Hodei-laino guztia zati-zati egin da tantakada biribil lodiz...! Orain arte batera baina aurrerantzean?

Hor goaz Euskal Lurrerantz bideak betean, orpoe-tan har barik eta burua galdu beharrean!

—Nor daroat alboan, behean, gainean, ondoan, atzean, aurrean, azpian...?

Ni neu, Garbitxu naz, baina orain ez dakit besteok nortzuk diran ere... Hain ondo egon naz lainamaren magaletan...!

Lehenengo euri tantakadak heldu dira lurrera eta Garbitxu Nerbion ibai ondoko etxe zahar handi baten teilatuko gailurrean jausi da eta teilarik teila doala, soloan baserritar bat jateko egiten, busti busturik, zaku erdi zulotu bat lepotik dingilizka dauala, estu eta larri ikusten dau eta badino berekautan:

—Guk egin dogu egitekoa! Gizon hori busti-busti-busti egin dogu. Nik neuk ez dot busti baina! Soloak itzekarrez beterik ere egon dira eta! Errogatibak ere egin dabez eta...!

Teilatuaren ertzera orduka hainbat lagun alkartu dira eta Garbitxu solo bateko eta besteko baserritarrei adi dago errukiz beterik.

—Zer egiten dok hor? Nori edo zeri adi hago? Jo hegik aurrera enbarazuan egon barik! —dinotso tanta-kada lodi, bizardun mandazain batek—.

—Bai, bai! Ondo dago, ondo dago...! gizon giza-joak! Apur bat itxaron bagendu! Solo-lanak aterrian egiteko astia emon bageuntso...!

Garbitxu jausi da ituxuran teilatutik behera eta badoa solorik solo. Bidean lagun asko egiten ditu egin ere. Batzuk bedar artean, beste batzuk sator-zuloe-tan...

Landea behera doala Garbitxuk inguruko baserrietako gora-behera guztiak ikusten ditu. Baserritarrak galapan dabiz baina poz pozik soloak irabazten dagozala ikusirik.

Zelako berbalotsa etxe guztietan! Danak euskera ederra egiten! Danak, bai, zahar eta gazte, andrazko eta gizonezko, umé eta ame! Ze giro ederra eta jatorra baserriko bakean!

Landa barrenera orduko Garbitxuri lagun asko gaineratu jako eta badino:

—Nora goaz honenbeste lagun batera eta hain lodi?

—Bilborantz zoaze! —erantzun dautso landa barretetik doan errekatxuko kare-harri batek—.

—Bilbora goaz? Ze ondo! Ze pozik! Ze ederto! Ji, ji, ji!

Errekan urak handi, geroago eta handiago eta hitzik ez da falta, danak berba gura. Garbitxu dana zan itauna eta badinotse ingurumarikoei:

—Zuek ere lainamaren seme-alabak zarie?

—Ni bai, ni ez, gu ez, gu bai...!

—Bilbo polita izango ete da?

—Bilbo ez dakizu Bilbo dala ala? —erantzuten deutso erreka gaineratik doan urretxa berez erne baten orri jakintsu batek—.

Garbitxuk pozik eta gogotsu gogoratzen dau ikas-
tolan Bilbori buruz ikasitako guztia eta esan eta esan
dabil Bilbora heldu nahi dauala.

—Tira-tira! ez hadi egon hain pozik, Bilbora heldu-
ko garalakotan egon eta heltzen ez bagara zer? —
dinotso Bilbora heldu nahi dauan beste batek—.

Garbitxu gaztea da eta han dabil zulorik zulo eta
inon diranak ikusi ere egiten ditu.

Halakoren baten han erreka troka sakon baten egoan
haritz harjo harro baten barruan, argizarizko argi epel
baten aurrean inondik ere urten ezinda egoan ur tan-
takada zahar eta gongodu bat aurkitzen dau goruetan.

Garbitxu ikusi gurearen ikusi gureaz, ondoregi
joan eta gureztala, goruetako ardatza jo eta lurrera ez
deutso bota ba! Baina atsoak, gaztea dala ikusirik
badinotso:

—“Zaran zaranori, ez dakizu ba lehenago kontra-
tuan garuetako ardatzak ardatz-bidea libre atera eba-
la?”.

Parkatu beist berorrek esanda, Garbitxu aurrera
doa errekea behera, zer ikusi ha ikasi, baina luze
egiten jako denbora eta bakarrik berbaz dario:

—“Ze luzea da Nerbion ibaira doan erreka hau!
Hemen noa ertzik ertz, gora eta behera, errekea be-
tean, hemen harri bat jo, hor bedar latz bat laztandu,
han arbola berez erneen sustraietan narrua urratu...!”

Non gagoz? —dino Garbitxu gogaituta—.

—Nerbion ibaira heltzen! —erantzun deutso bere
ingurutik dabilen arrankari mardo eta kolore bizidun
batek—.

—Oraindino ez gara heldu Nerbion ibaira?

—Bai zera! Hergoienetik helbarrenera bidea baino ez dozu egin oraindino. Laster zagoz ibai nagusian. Zuk jarraitu, jarraitu errekeari zuona gazteona da bizitza eta! Nik hemen jarraituko dot arraultzak ezartzen eta neure sendia zaintzen.

Batetik bestera eta bestetik batera, joan eta joan... Garbitxuk berak ere ez daki nora heldu dan eta badi-no:

—Ene! Zer da hau? Nongo urtzan sartu naz ni?...

—Nerbion ibaia dozu hori! —erantzuten deutso erreka-ibaiak bat egiten diran tokiko etxeko orma zaharraren alboharri batek—.

—Puffssss! Zelango ura da hau? Ze lohi dator? Ze hats edo? Baina, baina... Hau zer dok?

—Ez al dakizu Garbitxu, ur honeetatik Laudioko lentegietako pestekeria guztiak datozala? —esan dautso aurrez aurreko zubiko harri landu noiz-apurtuko batek—.

Behera eta behera gure Garbitxu eta bekokia geroago eta astunago. Bilborago eta urak askoz lohiago.

—Zer ur berde bitsdun da hau? Baina, baina...!

—Hau? hau... papelerako ur lohia dozu, ingurueta-ko pinu zatiekin egindako paperaren ur hondarrak! —dintso ibai bazter baten hil-biziko dagoan lore usain gozodun batek—.

Joan eta joan Garbitxuk "Bilbao" hitza irakurtzen dau. Kentzen ditu begietako zikinkeriak hobeto ikusteko eta ez da Bilbo, Merka-Bilbao baino.

Arteak ere ezin dau hartu gure Garbitxu eta pa-
zientziatik urtenda badino:

—"Hau ere onartu egin behar! Inguruetako zikin-
keria guztiak geure leporako. Zer egingo dogu ba!
Betikoa! Munduan beti hiru gauza sobra: Urruneko
egur igerra, itxasoko euria eta pobrearen errezoia!

Handik lasterrera, Garbitxu eta ondokoak beste ur
handi batzuekin alkartu dira Urbiko ibai urkuluan.

—Eeeeeuuuuppppp!!! —batzuk—.

—Auppppaaaa!!! —besteak—.

—Xxxxxxiiiiissssstttt!!!! -gaztetxuok!—.

Danok ixildu garanean hona hemen zer entzun dan
ibai bien arteko ur plastadan:

—Ibaizabal nire aita! Ni Nerbion berorren seme
zaharra naz eta sinistu ezindako gauzak ikusi eta bizi
ondoren, itxura barik, guztiz zikindurik, baina seme
zintzo lez berarreganutzen naz berorrek agintzen
deustan eran jarraitzeko asmoz. Lotsaturik nago da-
kardan jazkuna honekin baina berorrek ikusi balitu
hortik goitik, batez ere Arguya aldetik eta, jazori-
koak...!

—Trankil, seme! Ni neu ere garbia nintzoan baina
bidean lohi-lohi egin naiuek. Batez be Durango al-
dian. Gure bizitzan honelakoak sarri jasoko dituk, ez
hadi ikaratu! Gure egoera errukarria ez dok mundu
guztiaren errua eta!

Garbitxu zikinago egin da baina lagun gehiago ere
egin ditu eta jazoak jazota, Bilbora heltzeko poza ez
dau galdu oraindik.

Boluetara ere heldu dira eta... burdina meatzetako ur gorriak goitik behera jantzi dabe ibai osoa. Lehendik lohi etorri bada ze... orain azkena! Euskera be, ia-ia entzun be ez dau egiten, urrunerikako alauri sama-zarratudunen batzuk izan ezik.

Garbitxu ulertu ezinik dago. Hiltzeko bildurra sartu jako bere burua guztiz kontaminaturik ikustean.

Joan ata joan, dana beharrean heldu da Garbitxu Bilbora. Baina negarrez dago! Egongo ez ba da? San Antoneko zubi ondoan bera eta lagunak beherantz eta beste ur lohi gazi batzuk gorantz ez ditu ikusten ba!


Oraingoan bai, oraingoan Garbitxu burua guztiz galdu eginik dabil bakarrik berbaz:

—“Baina hau zer da? Barriz gora ete garoaz norbait? Ai! Oraintxe ni neureak egin dau! Hilda ere! Baina ez, belea baltzago ez da egingo eta ez noa burua errekarra botaten atzera-aurrera hau ikusi arte. Ai ama! Ai!

—Trankil Garbitxu! —esaten deusie Bilboko merkatupeko saneamentu bateko ur lohi, zikin, ugertsu, txankerre eta belarri luze batzuk. Hori itxasoko ura dozu eta lantzean gora era lantzean behera dabil. Bai...! Ez dakizu? Oraingo hau itxasgora dozu!

Garbitxu hor dabil batera-bestera eta gora-behera Arriaga ondoko erreka zatian zikinkeriaz josita, begiak lausoturik eta belarriak ia ezer entzuten ez dabela.

—Hau bada Bilbo, onak gagoz! —dino Garbitxuk begi biak igurtzirik—. Besterik ez bada ere, txori politik dira erreka negargarri honetan jan bila dabize-



nok. Asko eskatzea da, baina aterako banindu norbaitek egoera honetatik!

Esan eta egin! Badator halako itxas-txorietariko bat, pikukadea hartzen dau eta bere egoetako pliplapleotan... han daroa Garbitxu ezkerreko hego zuriaren ertzean.

Baina halako hego-hots baten, Garbitxu aidean bota dau eta Arriaga ondoko zubian erre kara adi dagoan gizon baten buruko txapel gainera ez da jausten ba!

Txapeldun gizona konturatu ere ez da egin bere eskutik dauala semeari ibaia erakusten egon dalako.

Garbitxuk arnasa hartu dau! Aita-semeak, biek bietara, ixildu barik dabiz. Garbitxuk ez daki nortzuk diran, baina euskaldunak dirala bai, txapelaz gainera euskera ederrean berbetan entzuten ditualako.

Garbitxuk, bera barik, beste bat dirudi baina ez dau galdu gura aita-semeen alkarrizketa. Belarri-zuloak ondo-ondo garbitu, txapelari deusala belarri bata jarri eta...

—Bizkaitz, Bilbo zaharrera joan behar dogu. Han kale estuak, lehengo denda barriztatuak, era guztietako tabernak eta..., ikusiko ditugu.

—Bai aita? Ez da egia izango?

—Bai, Bizkaitz!

—Aita, zahar berriztatuak zergaitik dinostazu?

—Ba, lehenago, Bilbo, zazpi-kaleak bakarrik zan, baina gaur erre kaz bestalde hazi eta hazi egin da eta hango modernotasunak ikusi ondoren ia dana barriz-

tatu behar izan dabe. Gaur Bilbo handia da baina ni gaztea nintzanean gaur etxe handiz jantzirik dagoan Bilbo zati handi bat, arto eta galonoz beterik egoan. Zelango aldaketa! Mundua aurrera doa eta nork jakin zer ikusi behar dogun!

Pozik baino pozago doa Garbitxu txapel gainean txapelpeko euskal giro haretan baina begiak zabal zabalik daroaz inguruetan zer jazoten dan jakiteko.

Ibili eta ibili, behin kale batetik behin bestetik... era guztietako eskaparate, denda, taberna, kiosko, eleiza, joyeria, zapateria, almazen, farmazia, gozotoki eta nik ez dakit beste zenbat gauza ikusi dituen ere. Kalerik kaleko joan etorrietan, era guztietako gentea ikusten deusku ikusi be, euskaldun banaka bat, euskaldunen itxurako erdaldun batzuk, erdaldun hutsak eta gaintiko banaka bat. Jantzita be, era guztietara, batzuk dotore, beste batzuk dezente, gaztelo batzuk batek badaki zelan euren kolorezko ule artez eta zereko zer eta guzti eskean euren sasorik onenean, ume mokodario errukarri batzuk be esku baltzizkak luzatzen... ai ene! Batek baleki zer pentsatu?

Euskaltegi batzuen aurretik be pasatu da eta euretara doazen ikasleen berbaikune ortopedikoa entzun be bai.

Garbitxu ezeze, aita-semeok be belarriak apurtu eginik daukaskuez euki be erdera eta euskera barri horren artean, eta halako baten badinotso aitak euskal ikasle talde bateko berbatiari:

—Hi, mutiko, bahenki zenbat baino gurago geunken Banko Bizkaiari deusala dagoen denda nagusi horretara joatea! Esango henuskit harako bidea?

—“Perdone usted” —erantzun eutson— “nosotros sólo hablamos batua”.

—Batua? —inoan berekitan— zer dan baino ez dok hori batua hori. Goazen, Bizkaitz, goazen paraje hone-tatik hau mendi hau ezin hartu geinke eta.

Aita-semeak ez daukie orpoetan harrik eta Bilbo zaharra ikusi orduan, barrirantz abiatu jakuz.

Gran Biatik joakeran Korte Ingelesera ere sartu dira eta hango hangotasun eta hangokeriaz zoratu ez dire-nean...!

Garbitxu ere estu eta larri ibili jaku “Aire Akondi-zionadok” barriz lainotu beharrean izan dau eta.

Baina tira, batzuk eta bestea, hirutzuk, zoratu barik eta bizirik urten deuskue Korte Ingeles horretartik.

Odolak ur eginik izan dabez eta larritasuna kentze-ko, “BETI EUSKERAZ” izeneko taberna batera sartu dira.

Aitak pernil altzi bat ogi kuskur bategaz hartzen dagon bitartean, Bizkaitzek limonadeari daragoio.

Garbitxuri ostera barruak ez dautso ezertxo ere eskatzen bihotz-erre larriak jakatsu itxi daualako. Halan eta guztiz ere ondo zuhur begiratzen dau inguruetara.

Begiratu, ondo begiratu dau garbitxuk, baina tama-lez beterik dago euskal izeneko tabernan ere ia danak erderaz entzuten ditualako eta badinotso bere burua-ri:

—“Ardandegi hau ere bete beterik dago eta mostra-dor aurrean hor dagoz lekua egin ezinik gure aita-

semeok, lotsaz-lotsaz eta ahopetik euren euskera ederra egiten delituren bat egiten ete dabelakoan edo...! Holakorik! Gero... bilbotar askok euskalDUNAK dirala esango deuskue!

Bizkaitzek eta bere aitak euren jan-edariok amaitu dabez eta ordaindu ondoren burua erdi makurturik hor doaz biak eskutik katua sagu bila baina ixilago.

—Bizkaitz, goazen Bilboko parkea ikusten. Gran Biatik joango gara.

Parkea garbia eta polita da urteokaz ez bada aldatu. Ni gaztea nintzanean behintzat ondo polita eta garbia zan...!

—Bai aita? Goazen, goazen! Ze pozik zago?

Garbitxu ere poztu da ez gitxi, leku garbi eta polit bat ikusteko baina itsuturik doa hango kotxe, semaforo, mikro, trolebus... eta gorturik inguruko. Rrrrraaammm,Rrrreeemmm, Rrrriiii! ekin.

Taxistak begiak bota beharreatan, mikroak ere ez asko astiroago, berebilak alkar jo eginik, euren artean batzuk bolantetik eskuak jasorik "erderaz berbaz" daragoiola.

Zer da hau? Gero... nerbioetatik jende asko dabilela...! Ibiliko ez da ba? Ai! hau da egotaro negargarria! Bake bakean eta lehen baino lehen helduko bagina parkera! Gran Biako morokil garratza itxi eta laster, parkera heltzen dira. Sarreran, Lehengo zorabia kendu barik, bideko durundeak oraindik kaskatean dituelarik, parkeko arbola, lore, bedar, ume, zahar eta ez dakit beste zenbat gauza ikusten dabezan!



—Aita! aita! Begiratu, han aurrean ur putzu bat dago eta gainean oiloak!

—Ez, ez dira oiloak, ahateak baino.

Bizkaitz sapa saltuka doa ahateak ikusten aita irribarreka begiratzen deusala.

Garbitxu ostera, poztu beharrean goibeldu ez da egin ba! Nergar baten hasi jaku! Zer jazo ete jako?

Zer jazoko jakon ba, aita-semeak baino lehenago ikusi dau ur putzua eta garbi egongo zalakotan egoan eta hurreratu danean lohi-lohi-lohi ez dau aurkitu ba!

Negarrez dago. Begi biak iturri bihurtu jakoz. Bakarrik daragoio, bai, bakarrik burua hankartean sarturik:

—"Parkean ere ez dago ur garbirik! Hau ez da bizitea! Bilbo ez dot gura era honetan ikusi! Ni ez naz honako! —Garbitxuri odolak ur egin jakoz—. Dirua, teknika, barkuak, kotxeak, handikeriak eta Bilbo bilbotu honetan... ur garbidun leku bat esanda eta bera ere ez!

Garbitxu negarrunpuluak dariola dago zeozer egin nahian baina ezin dau ezer egin.

Zikinkeriak min handia emoten deutso baina askoz handiagoa Euskal Hizkuntza ederra egin ezaren egin ezaz hil-biziko ikusteak.

Garbitxuk ezin dau onartu huriaren egoera, gaixorik, oso gaixorik ikusten dau Bilbo baina asko maite dau eta ondo ikustea gura dau. Negar egiten deutso Bilbori baina itxaropena galdu barik.

Negarral... dia egin eta gero, gora adi hasten da Garbitxu eguzkirik ikusten dauan edo..., eta eguzkia barik bilbo eta inguruetako ke gorri, baltz hatsdunak ikusten ditu lainoperik lainope hauts baltza dariola.


Hau guzti hau ikustean, konortea ere galdu eginik izan dau eta dagoan dagoanean aita-sumeak ahatei ogi mamiak botaten dabilizan bitartean, ahal dauan lekutik indarrak ateratik hauxe abestuteari emon deutso "mi bemol menorreko" doinu errukarri batekin:

Pozik nentorren Bilbora
Handitasunen albora
eusker a bako huri zikin hau
utziz, banoa lainora.

Bihotzeko mina emoten deutsan abesti hau abestu ondoren, zabaltzen ditu begiak eta: Ene! Eguzkia...! eta bene benetakoa gainera...!

Ipar haizeak sortutako laino itzekarra estu batetik, eguzki dizdira bi edo hiru heldu dira Bilboko parkean dagoan esukaldun gizonaren txapalera.

Garbitxuren poza bitargi hau ikustean! Ustrukua-ren argi bigun eta gozo batek irentsi dau Garbitxu eta Bizkaitzen aitaren txapelean derrigorrez jantzirik erabili dituan soineko jantzi lohi eta kontaminatu guztiak itxirik, hor doa gure Garbitxu garbi-garbi eta laino txiki bihurturik barrien barriz lainamaren magalera.



Garbitxuk ezin dau sinistu, ezin dau ulerku, ezin... baina egia da, egia...! beleak beti bere haitzera joten dauan lez, Garbitxu ere laino txiki bihurtuta, gora eta gora doa baina bere begiak behera adi dagoz oraindi-no inori agurrik egiteko asti barik lainotu dalako.

Ipar haizeak Ganekogortarantz daroa gure Garbitxu, bai, han doa esku biak jasota agur baten Bizkaitz osoari.

“Pagasarri gainetik, agur parkean geratu zarien Bizkaitz eta bere aita; agur esukaldun guztioi Ganekogortatik; beste baterarte garbitu barik geratu zarien lagun guztioi Mandoia puntatik; Lekandatik, agur, erreka izena merezi ez dauan errekatik atera nozun txoria; eta Gorbeiaiko puntatik, pozez beterik, sinistu ezinik, oso osoan euskaldun jator eta zintzo izanik:

Agur Eusko Lur guztia
euskaldunen jatorria
garbi ta euskaldun izan daitela
beti gure Euskal herria”.



Adin: Ededea.
Altzi: Apur bat.
Arrankari: Amurrain.
Arteak hartu: Lasaitu.
Barrien barriz: Barriro.
Beist: Egidazu - egistazu (zuka).

Belea baltzago ez da egingo: (Esaera)
gauzak txarto urten.
Beleak beti bere haitzera: (Esaera)
norbere herria maitatzea.
Berba gura: Hiltz egiteko gogo
handia.

Berbaikune: Berbaikera.
Berbalotza: Berba asko egitea.
Berbea: Hitzia.
Berekautan: Bere barrutik; bere buruari,...
Berekitan: Bere buruai.
Bidazki: Bidean datorren bat.
Bideak betean: Bidean batetik bestera.
Bitargi: Laino mehatzunik zerua ikusi.
Daragoio: Dario, dihardu.
Dario: Dihardu, daragoio.
Daukaskuez: Daukiez (guri).
Deutsala: Erantsita, eusten, ikutzen.
Dotore: Ondo jantzirik.
Edan bako hordia: Zorabioa, mareoa.
Egondua: Zaharkitua, denpora asko egonekoa.
Egotaro: sasoia, egoteko aroa.
Enbarazuan: Estorbuan.
Erre eginik: Erre beharrean, ia-ia erretan.
Errogatiba: Zeozer lortzeka otoitzak (euria etab...).
Ezarri: Imini.
Gailurra: Goiko ertza.
Gainetu: Inguratu.
Galapan: Arineketan.
Galondo: Garia egoneko soloa.
Gaztelo: Gaztekote.
Gogaituta: Aspertuta.
Goruetan: Liño edo lanazko haria iruten.
Gureztala: Nahiezean.
Harjo: Harrak joa.
Helbarren: Herri barren.

Hergoien: Herri goien.
Heunskit: Zeunskit (zuka).
Hezoo: Bustia.
Hil-biziko: Hil beharrean.
Hitzotsa: Berbalotsa.
Itoxura: Teiletatik jausten dan ura.
Itzekarra: Arrankala.
Jakatsu: Jateko gogo barik.
Jateko egiten: Ganaduentzat bedarra eta ekarri.
Jazkuna: Jantziteko era.
Konortea: Sena.
Magaletan: Ingurumarian.
Mandazain: Astakirten, kankailo, mando-zaina.
Mardo: Lodi.
Mendia hartu: Egokitu, adaptatu, hatara egin (esaera).
Mokodario: Mokoak dariola dagoena.
Nireak egin: Azkena.
Paraje: Toki, lurralde.
Pikukadea: Egaztiak pikuan eroaten dauan janaria.
Pliplapleoa: Hego- zarata egazkadan.
Sasoia: Garaia, tertzioa, edadea.
Txankerre: Hanka meheak (burlagisa).
Ugertu: Zikin.
Ume eta ame: Txiki eta nagusi.
Urkulu: Edozer batetik adar bi zortzea.
Ustrukua: Ostadarra, erromako zubia.
Zer ikusi ha ikasi: (Esaera) ikusten dana ikasten dala.
Zorabioa: Mareoa.

EUSKAL SINESKERETAN ZEHAR

Euskal Herri zahar eta barriaren arteko zubiari zutunik eutsi nahian eta euskaldunen hagea gaurko gure multieraginezko gizartera ekari guran, udabarriko egun eguzkitsu baten, hartu bideo tresna sofistika-tuenak neure lepoan eta euskal telebistarako, antzina-ko euskaldunei buruzko erreportaje diakroniko-Fantastiko bat egiten joan nintzan.

Euskalerrria dana da polita eta ez nekian norantz hartu, baina azkenean Gorbeia bidea hartu neban, Bizkaitzen lurralde ederra gozatuz.

Joan eta joan, Gorbea ondoko Supilaur kobara heldu nintzan. Supilaur, koba handia eta sakona da, eguzkibegia, artzainen neguko legor ezkutua, eta herritar guztientzat entzute handikoa, Anbotoko Señorea eta , bertan egoten ei ziralako.

Konbaren ataka-atakan nengoala, heldu neutsan bideoari. Gorbeia inguruko barerri, artzain, ikazgin, egurgin, mendi, baso, haran, ibai... aurrean neukan guztia filmatu ondoren, linterna argitsu bat biztu eta kobara barrura sartu nintzan.

Joanago eta ilunago egoan eta kobako iluntasunak linterna-argia jan egiten eustan, epertargi jasa neunkalarik.

Jakitun nengoan oraindino inor ez dana joan kobaren azkeneraino eta banekian astzainik ausartiena ere kandela-argia amatatzen zan tokitik aurrera joaten kapaz ez zana.

Halakoaren baten heldu nintzan ba artzainei kandela-argia amatatzen jaken tokira. Samako intxaurrek ere gora eta behera egiten eustan baina belea baltzago egingo ez dala eta, aurrera egin neban oraindino inork ikusi bako koba zatia filmatzekotan.

Linterna eta guzti ere, ikusi ez zan gauza handirik ikusten eta neure atzerikarako gerizeak ere bildurtu egiten ninduan.


Linternea amatatu eginik neukala, bost edo sei kintaleko harri boladun horma antzeko bat agertu jatan aurrez aurre.

Hurreratzen naz astiro-astiro, belarri bata ha ormeari deusala ipini eta ur zaratarainoko guztiak entzun nebazan.

Ikarearen ikareaz, ez neban ia aurrekorik ere ikusten. Linternea ere ia ezebezean neukan eta ni, han errukarri, bildurkilik, atakako argia baino ikusten ez nebala.

Nire neure gorputzeko pipiladurea eta artegatasunean, argi moduko bat ikusi neban bolazko horma bitarte batetik.

Uleak ere erteztu egin jatazan! Banoa horma bitartetik begiratzen, begiratzen dot eta... han zan izatekoa! Anbotoko Señorea, basajaun batzuk, hiru-lau lamiña eta deabrua ez dodaz ikusten ba haitz-urezko iturri baten ondoko sugar inguruan bakoitzak bereari era-



goiola! Odolak ur egin ez jatazanean bertan! Ametsetan nengoalakotan nengoan baina egia zan, hantxe egozan egon ere eurak euretara berbalotsean!

Birritan pentsatu ere egin barik, harri bitarte hendienean jarri eta filmatzen hasi nintzan, baina alperrik, barruratxu egozan eta ezin, ezin ezer lortu, ha zan ezbeharra!

Nengoan tokian egotea ere mugarrietan barruratxu sarturik egotea zan gauza onerako baina ha eksklusiba ha lortzeak merezi ebalak ikusiz, itxi alde batera bildurrok eta badinot:

—EEEUPPP!

—Nor dago hor? —erantzun eben danak batera—.

Ni neu, kakadario bat lez nengoan harri bitartetik begira eta berehala plantatu janta basajaun bat hormaz bestalde eta badinost:

Nor haz eta zer egiten dok hor? Joaten ez bahaz oraintxe etorri hazan lekutik gorriak ikusi beharko deustazak!

—Ni bake-bakean natortzue! Ez nekian hemen zengozenik baina ikusi zaituedanez gero zuekin berbaldi bat egin barik ez neunke joan gura!

—Berbaldi bat? Neuk emongo doat hiri berbaldia alde egiten ez badok!

Anbotoko Señorea, basajaunaren harrese eta buru gogorkeria ikusirik hurreratu jakon esanaz:

—Bakean badator itxi eiozu bakean, aspaldiko gizaldietan Euskalerriko barririk ere ez daukagu eta

beharbada arrezkero ez dakigun barri asko ekarriko deusku!

—Bueno, berorrek badino, bakean itxiki deusat.

—Bai, basajuna, bai, bakean itxi bakarrik ez, kendu eiozu harri bola bat eta sartu daitela barrura hori bada nahi dauan hori!

—Tira ba, berorrek gura dauan lez egingo dot.

Basajaun indartsuak, zirri handi barik kendu eban bost edo sei kintaleko harri-bola bat eta ni, umeak zapata barriekin baino pozago sartu nintzan sartu ere barrura.

Barrura sartu eta bideoa barriro martxan botatzea dana zan bat eta joanean-joanean ingurumari guztiak filmatu nebazan. Han egozan egoteko gauzak! Urre-gorritzko ontziak, Harri landuzko mahaiak... eta kontatu ezineko beste hainbat gauza eder!

Ibili eta ibili, kobearen azkeneko zabalunera heldu nintzan eta ha zan ikustea! Ur garbidun erreka eder bat eta ikaragarritzko sugar baten inguruan Anbotoko Señorea, basajuan, lamiña eta deabrurainoko guztiak ezarrita kontu-kontetan.

Sinistu ezinekoa zan! Danak neuri adi, begiekin jan behar ninduen! Laminetariko batek ere irribarrereino-ko guztiak egiten eustazan! Zoratu ez nintzanean, zoratu!

Ni neu ere, halakoren baten, sutondoko mokor baten jarri nintzan eta eurei hitz egiteko astirik emon barik, neu hasi nintzakien itaunka.

Ez egoan bururik apurtu beharrik lehenengo itauna nori egingo neutsan jakiteko, aititari eta, entzunda neukanez, Anbotoko Señorea zalako entzuterik handienetarikoa

Esan eta egin, Anbotoko Señoreari bideoa aurrerikara jarri eta badinotsat:

—Nik zure barri jakin badakit baina ez nahi neuken beste, zeozer gehiago esango bazeunst!

—Bai, mutil, hori baino ez bada! Ba, zer esango deusut ba nik! Begiratu, neuk ere ez dakit ondo noizkoa nazan, baina euskaldunak Euskalerrian bizi diranik eta honakoa bai behintzat. Nazana zelan egin nintzan ere ez dakit baina azken urteotako batzuen ustez badirudi neure amaren maldizino baten bidez bihurtu nintzala Anbotoko Señora.

Eleizastiku bat baino gehiagoren ustez, maldazio baten bidez seguru, Anboton agertu nintzan lehenengo eta neure podereetatik kanpo ez neukan besterik ezer, baina inguruetako artzain eta herritarrak kobara etorri eta danerik ekarten eusten. Apurka-apurka, koba-zuloa itxuraztu egin neban eta arrezkero pozik bizi nintzan. Herritarrak euren gora-beherak konsultatzen etorten jatazan eta oso ondo konpotzen ginan.

Egun baten ama etorri jatan Anbotora zelan nengoa ikusten eta ondo nengola ikustean, Gorbeiako Supilaur kobara bota ninduan. Garretan joan nintzan eta herritar asko bildurtu egin nebazan neuk ez daki-dala.

Gorbeiara heldu eta ezer ere barik aurkitzea danazan bat. Ahal nebazan piztiak harrapatu eta gordin gordinik jateari emon neutsan.

Han ere laster hurreratu jatazan inguruetako base-rritarrak eta koba hotz eta hutsean ikustean, errukitu eta ahal eben neurrian laguntzen eusten.

Supilaurko koba-zuloa Anbotokoa bestean edo hobeto apaindu neban eta pozik baino pozago bizi nintzan herrikoekin hartuemonean eta bake bakean.

Ondo baino hobeto nengoa Supilaurren baina batzuri urruntxu egiten jaken Gorbeiaraino etortea eta horregatik zazpi urtetik zazpi urtera Gorbeatik Anbotora eta Anbototik Gorbeara ibiltzen nintzan noizean behinean beste lurralde batzuetako koba batzuetara ere joanaz.

Hrritarrak errezkan etorten jatazan konsulta eskatzen baina gizaldiak joan gizaldiak etorri, kristautasuna heldu zan Euskalerrira eta indartsu heldu ere. Euskaldunak Jesukristoren barri ikasi eben eta kristau egin ziran.

Ni, apurka-apurka, ahaztuz joan nintzan eta arrezkero ezin neban euki kristau ezaugarririk nire koba-zuloan. Dana dala, eleizastikuen ustea baino lehena-gokoa ñatzu eta eurak agertu ziranean, hor joan nintzan mundurik aramaio kristau aurreko nire kide guztien bila eta aurkitu be, ugari aurkitu nebazan itxas aldetik lur barrura bitartean. Danei be bai, baina batez be Zizili Bermeotar laminari eta Euliski Markinar jentil onkoteari asko be asko kostatu jakien ni nengaz etortea Gorbeiaiko Supilaur koba zulora. Baina ikusten dozunez, hemen gaukazuz herritarrengandik alden-duta eta ahazturik. Tartalo greziarra be hemendik izan gendun garai baten.

Halan eta guztiz be ohiturak ohitura dira eta ez dira hain errez galtzen, horregaitik kristau bat baino gehiago etorten jatan konsultatzeraz.

Baten ere, gogoratzen naz, ola barri bat egin eban gizon aberats batek eta ezin eban bota martxan.

Ni Supilaurren nengoan eta morroi bat heldu jatan olea martxan bota ezinik egozala esanaz.

Ni goruetan nengoan herri zekorra ondoan hausnar nebala, baina ha morroia ikustean, goruetari itxi eta sagardoa atera neutsan mahaira urregorritzko basuan. Izerditan egoan gizajoa eta "Jesus" esanaz dranga-dranga edan eustan basukada sagardoa. Gero olearen konsulta eskatu eustan eta deabruak lotuta eukala esanda gero, urli lekuko komentoko superiorragana joan eta olea bedeinkatu eiala agindu neutsan.

Morroiak eskerrak emon eustazan. Nik, atzerantz urtetzeko agindu eta basu bedeinkatua beragaz eroateko eskatu neutsan. Neuk esandako guztia egin ebe-netik trikitin-traukitin trikitin-traukitin! eragoion ola barriak.

Beste kasu asko ere kontatu neikizuz, nik neuk ere ez dakit zenbati lagundu neutsan eta.

Nitaz gauza asko esan da eta ez da harritzekoa, bizitza luzean gauza asko ikusten dira eta.

Bizitza aurrera joian eta herritarrei begiak zabalduz joakiezan neurrian, nigaz ahaztu egin ziran eta inor etorten ez jatala aurkitu nintzanean koba honen sako-nean sartu nintzan honeekaz besteokaz eta hemen nago zeinakio.



JESSE '90

Anbotoko Señoreari begi biak negarranpuluz bete jakozan eta guztiz negarrez hasi ez jatan, ondoan neukan barajaunarenganantz jarri bideoa eta badinotsat:

—Eta zuk zer? Zer egiten dozu ba hemen?

—Ba, beste batzuk lez, bizi!

—Zuen barri jakitea ere asko gustatuko litzakit niri neuri!

—Ba, aitu, gaur ezer ere ez gara baina antzina bai. Gu, ikusten dozunez, handi handiak, indartsuak eta belaunetarainoko bizar luzedunak gara. Herritarrentzat basajaunak zein jentilak ginen eta goietako basoak geunkazan geure bizilekutat.

Labrantza, baso-lan eta industrigintzan herritarrak baino askoz aurreratuago genbilzan. Jolasak ere begeunkazan eta sarritan egiten genduan harri-bolan mendi batetik bestera.

Herritarrekin, tira, ez ginan hain txarto konpontzen baina batzuetan... arineketaldi batzuk emoten geuntsezan.

Garai baten haserretu egin behar izan genduan herritarrekin, Samartintxuk, bere zuhurtasunaren bidez garia ostu euskulako bere oinetako nasaietan, gura dala gari garauak eroanaz. Eta ez hori bakarrik, handik lasterrera, bere aginduz, beste batzuk gugana bialdurik, errota ardatza, burdina lotze eta zerrea egiteko era lortu ebazan geuri sorots eginda gero.

Baina tira, urteak joan urteak etorri, haserreak neurri askotakoak dirala eta, barrero ere batzuk behintzat lagun egin ginan.

Belaunaldiak joan belaunaldiak etorri, gutariko batzuk ikatza egosten egözala, laino zuri bat agertu jaken seguru ekialdetik. Inork ez ekian zer zan. Jentil zahar-zahar bat bizi genduan eta harexeri itandu eutsien laino zuri hori zer zan eta esan baeutsien ze, ikusiaz batera "Kismi" jaio zala erantzun eutsen.

Garai haretan gureak egin eban eta jentil zaharra aurretik zala jentil-harri baten azpian hil ziran danak bat izan ezik.

Olentzero zan hori eta "Kismi" jaio zala entzutean, arin ere arin joan zan herrira barri ona emotera.

Herritarrak asko poztu ziran eta jan-edan gura danak emon eutsiezan emon ere, errementau ahalekoak.

Ni, eta ni lez honeek beste hiru lau basajaunok ere, ikusiak ikusi ondoren, mundu honetan zereginik ez geunkala eta, buruak makur-makur eginda, kobazulo honetara jo genduan Mariren eskutik zelanbeist bizitzeko aurrerantzako denbora guztia. Tartalok be alde egin euskera Greziarantz.

Lehenengotan koba honen atakan egoten ginan geure egoera ulertu ezinik eta lantzean behin artzainen bat ere etorten jakun baina kristauen aurrean ez geunkan podererik.

Egun baten ere, artzain gazte bat etorri jatan hona eta egosten nengoan ikatz txondorrean urre gorria neunkala ikusirik, eskatu egin eustan. Nik neuk hartzeko esan neutsan baina zaratarik egin barik zein deabrua iratzartu. Baina zarata handia atera eban eta ez dau ba erdi lotan egoan deabrua iratzarten! Ha zan izatekoa! Artzaina aurretik eta deabrua atzetik.

Mendirik mendi joiazala, halakoren baten eleiza bateko kanpai-hotsa entzun zan eta deabruak ezin eban aurrerago egin. Orduan maldizino bat bota eutsan ezbeharrrik ez jakola faltako esanaz, eta halantxe jazo zala daukat entzunda.

Arrezkero ez da hona gehiago inor etorri. Bakarta-deak bildurtu egiten ginduzan eta hemen ikusten dozuzanokaz batera atakea itxi eta guztiz barrura sartu ginan. Ez dakit ba gehiago zer kontatuko deutsudan! Hemen daukazuz honeek laminok ere berbagura eta horreekin badaukazu zati baterako". Egia zan, laminak ere berbagura neukazan eta denboratik galdu barik irribarreka egoanari badinotsat:

—Zeri egiten deutsazu barre?

—Ba, zeuri!

—Zer dala eta?

—Ba, zurekin, gure antzinako bizitza gogoratzen dodalako!

—Bai? Zelangoa zan ba?

—Ba, gu, garriz gora, nerka polit politik gara baina oinak arrain edo ahatearenak daukaguz. Jantzi luzee-kin ibiltzen ginanez, herritarrak ezin euskuezan oinak ikusi. Erreka ertzetan igaroten genduzan gure egunak uleak orraztu eta uleak orraztu eguzki ederra hartuz.

Zuetariko batenbat hurreratzen jakunean, errekan sartzen ginan inork ikusi ez egiteko. Baina batzuetan akordatzakoan etorten jakuzan herritarrak eta uretara saltu egikeran urregorritzko orrazia uzten genduan erreka ertzean. Gehienetan ostu egiten euskuen orra-

zia eta etxera eroan, baina guk geuk ere ez geuntsan
bakean uzten harik eta orrazia lortu arte hauxe abesti
hau abestuz:

“Lapur gaizto itsusia
hau da zure desgrazia
lo ondo egin gura badozu
emon barriz orrazia”.

Askotan, geuk ez dakigula, sorots egiten euskuen
herritarrak eta zaharrentxuenak baekien gure oinen
barri.

Hau dala eta, aldi baten, zulako mutil gazte bat
gutariko lamina polit batekin ezkontzekotan egoan.
Baina egun baten mutil gazte maiteminduak, amaren
aginduz, oinak ikusi eutsazan beragaz ezkontzeko
egoan lamineari. Ikusi baeutsazan ze, disgustuaren
disgustuaz hil ez zan egin ba!

Laminea ere oso triste egoan eta gorputza ez bazan
ere arimea ostu gura eutsan mutilari. Hiletako eguna
heldu zan eta emakume artean joian laminea ere,
eleizan sartu baino lehen mutilari arimea ostuteko
asmoz baina abadea konturatu egin zan eta andariei
keinu bat eginaz, behingo baten sartu eben mutil
gaztearen gorpua eleizara barrura. Kristau guztiak ere
atzean sartu ziran baina laminea ez, sartu ezinik gera-
tu zan zarataka eta sokorru baten.

Gu esnezaleak ere baginan eta tximinia-zuloetatik
sartzen ginan maskeluetako esneak sorosten.

Surteko sua biziagia zanean, esneak ganaz egiten eutsen etxeoandrei eta gu orduan "txurie gora, txurie gora"ka hasten ginan.

Egun baten gutariko batek esnebetekada bategaitik salatu egin ginduzan betiko zelan galduko ginan esanaz.

Herritarrak, entzunak entzunda gero, laster aurkitu ebezan San Juan egunean jaiotako zekorrak eta errekek tragastu. Holantxe galdu ziran lamina guztiak, odola dariola eta sokorruka. Geu bakarrik geratu ginan bizirik eta hemen gagoz noiz arte ez dakigula.

Deabrua ere han egoan bazter baten eta ez eukan barriketarako gogorik baina beren beregi joan nintzan bere ondora eta badinotsat:

—Zuk zer egiten dozu ba hemen?

—Zer egingo dot ba, egon egin behar!

—Baina, noiztik zagoz hemen ba?

—Horrek zuri ez deutsu ardura!

—Egia da, baina honeek besteok kontatu deuste euren barri eta zu ez zara gitxiago izango ezta?

—Ba, begira, ni honeek besteok baino gazteagoa niaiatzu eta neu ere Euskalerrian zehar nenbilen kristauen arimen bila baina kristauak ondo irakatsita egozan legez, ezin neban inondik ere arimarik lortu.

Era askotara agertzen nintzan herritarren aurrean, batzuetan pertsona dotore bat lez, edozein abere legez beste batzuetan, eta gehienetan ekaitz-hodei lez, baina alperrik!

Baserritarrak, lanpeturik edo larrialdietan egozanean maldizinoka eta lagun gedarrez aurkitzen nebazan. Nik orduan lan truke arimea eskatzen neutsen baina kristau gehienak hortik zehar botaten ninduen deabru gaiztorik ikusi gura ere ez ebelako euren ingurumaritik.

Beste banakaren batek ostera baietza emoten eustan, baina laguntzaile "prakagorri" guztiak ingurutik ikustean, orpoetan har barik joaten ziran eleiz-gizon batengana jazorikoa kontatzen, eta nik neuk ez dakit zelan baina azkenean danak lortzen eben urtenbideren bat euren arimea galdu ez egiteko.

Kasu asko kontatu neikizuz kontatu ere, esate baterako Kastrejanako zubikoa.

Gaba iluntza baten, abemariak jo eta gero, neska gazte bat iturriko uretan joan zan. Iturria urrun eta gainera erreka bestalde eukan. Iluntzen joian eta neskea geroago eta larriago.

Halakoren baten neskeak, arteak ere hartu ezinda eta erdi zoraturik maldizino bat bota eustan esanaz:

—"Oraintxe ez dira etorriko inpernuko deabruak neuri hemendixik zubi bat egiteko iturriko haronakoa behingo baten egin daidan!"

Nik neuk hori entzun nebanean, kaballero bat lez agertu nintxakon zaldi eder baten gainean eta badi-
notsat:

—Zubia egingo jatzu, egitearren zeure arimea eskeintzen badeustazu!

—Bai! —erantzun eustan—. Hartu eizu nire arimea baina egidazu zubia, arin, belu da eta.

Hori entzun nebanean, deitu neure laguntzaile "prakagorri" ei eta zubiginen hasi ginan danok, bata bestea baino finago.

Baina gu jo ta ke ikustean, neskea bildurtu egin zan eta herriko parrokoari ateak jo eutsazan. Jazotako guztia kontatu eutsanean badinotso abadeak:


—Alabatxua, zuk egin dozu egitekoa! Zure arimea salbatu nahi badozu, zoaz arin etxerik etxe eta: "Martian oilarragaz ibilitako oiloaren arrautzatik jaiotako oilar bat aurkitu behar dozu eta zubia egin orduko "kukurruku" egiten badau, salabatuta zagoz".

Joan zan ba neskea, baina ez bakarrik, ia-ia herritar guztiekin eta zubia harri baten faltan geunkala, ez dau oilar hori aurkitzen ba!

Neuk nekarren ekarri ere azkenengo harri hori oilar berezi horrek "kukurruku" egin ebanean. Oiz menditik nentorren harria lepoan nebala eta parrokoak esana bete zanean podere barik geratu nintzan. Bertanbera itxi behar izan neban harri hori. Handia zan izan ere ha harria eta lepotik botakeran... hark egin eban plastadea!

Nik neuk, benetan ere, odolak irakiten neukazan baina halan zein holan, ez neukan zereginik, eta toki haretatik alde egin baino lehen, amorruren amorruez joten dot esku zabalaz harritzar hori eta bost hatzamarak markaturik itxi neutsazan".

Deabruak bere deabrukeria guztiak kontatu behararen kontatu beharraz, ez eukan azkenik ere. Niri bideo zintak azkena jo eustan baina halan eta guztiz ere berbetan jarraitu eustan baltzolako subearrenak eta gaisetiko guztiak kontatu arte.



Euliski Markinar jentila be, bere bizarrak igurdiz, ez egoan isilik egotera eta horretara badinotsat:

—Hik be antza, badaukostak zer kontauren bat!

—Eukiko ez joat ba? —erantzun eustan irri-barreka—, beitu heidak, entzun heistak! Ni neu, Markina ingurutik ibilten nintzoan eta itxasoa be pausu bian ñeunkan. Herritarrak, eurak be bai ni, baina nik neuk be asko maite ñoazan. Beitik noraiño, domeka eta jai-egunetan eurekaz nahaste joaten nintzoan mezara baina, sandies! ezin izaten nintzoan eleizan sartu handiaren handiaz eta hegoaldeko bentana nagusienan begia iminita ikusten ñoazan kristauen eleizkizunak.

Batzuetan, ez jakinean, gureztala, trabezkeriak be egiten ñeuntziezan. Baten e, zerrariak gaztaina-oholak egiten jeguazan ondoan loak hartu niñoan eta hurrengo goizean zerrariak goiak eta beheak joten gazteina enborrik handiena falta jakiala eta. Nigana etorri zoazan kantu eskatzen baina nik ez ñenkian ezer. Baina gaulendian eguzkia sartzamendira noiz sartuko dagoela, bañoak prakak soltetan eta hara han non agertzen dokan ha gaztaina enborra oso osorik kaka artean! Jakina, nik, nire lo-arrantzaren baten irentsiko naioan eta gero ba gerokoak!

Beste baten be, itxas ertzean jarrita ñengoala euli endemoniño bat ikusi naioan txalupa baten eta zalea nokan lez, zurrupada batez eulia ezeze txalupa eta txalupako guztia ez ñoan irentsi ba! Baina eskerrak botaka egin erazo eustiela urdailaratutako arrantza-leen eupadak! Bestela, batek bajarik zer gertatuko zoan!

Honeek jazoerok goitik behetik ez ñeunkan aparte-ko buruhausterik eta sarri askotan zaindu egiten ñoan herria arerioengandik.


Beste baten be, Markinarren aurka gainera zoazan inguru-herri batzuk eta nik neuk orduan, barruan hezurra daukien frutak ekarteko agindu ñeuntzian. Zaran eta otzarakadak ekarri be egin jeustiezan eta ekarri ahala nik danak barrura. Tripea bete-bete egin orduan, zilborrean esku biekaz sakatu eta hasten nok ahotik hezur botaten, ha zoan ikustea! areriotarik inor ez zoan ez ausartu Markinar bati ikuturik be egiten eta hankartean buztana dauan azagariak lez alde egin behar! Horrek guztiok eta gehiego be kontatuko ñeunkezak baina zergaitik ez hoa Ziziligana?

Esan eta egin! Han geunkan Zizili Bermeotarra bere oin-buztanaz plisti-plasta, txirripiztadotsean iturrikouraz koba bazterreko odoldia laztantzen benetako euri lanparra balitz lez.

Itaunak eginago eta uxago! Ez eustan kostaldeko-rik ezertxo be kontatu gura, Ondarruko mamuenik be ez, baina nik be, honango temosokerietan, egur eskar-mantadua sugin ona dan letxe, ziri bat bota neutsan erdi burlazar esanez:

—Tira, neskato, ez donat mindu nahi baina ako Izaroko kontua ez jonat uste guztiz argi dagoanik!

—Eh, zer dinostazu, argi ez dagoala? Egongo ez da ba! Beitu eizu, hori kontu hori honantxik eta honantxik da. Antzina, Bermeotarrak eta Mundakarrak beti genbilzan eztabaidan Izaro dala eta ez dala. Orduan, agure zahar bati ez jakon akordatu besterik hauxe baino, estropadetara jokatzera irla hori eta kitu! Hatan



geratu ziran herri biak eta porturikako urteera Marti-oilarraren kukurrukuaz batera egiteko. Baina Bermeotarrak, aldi baten Dimoztarrak Otxandioarrekin egin eben lez, galtzu-zuziak biztu eta iratzartu egin eben Marti-oilarra eta Izaroratz urten. Mundakarren oilarrak egunsentiaz batera jo eban bere kukurrukua eta hareek be bardin egin euskuen, baina hara orduko han egozan Bermeotarrak jaun eta jabe eginik. Eta hau ez nik bakarrik, Marik be kontau lei gau haretan Santimamiñetik ibili zan eta.

Anbotoko Señoreak berbarik gitxien egiten euskun baina halako baten badinost erdi irribarreka:

—Zu, mutil, guk gizaldiak eta gizaldiak daroaguz hemen eta ikusten dozunez ez dakigu Euskalerritik zer jazotzen dan ere. Zure barriak ere jakin gura neukez eta gaurko zeozer kontatuko bazeunts neure eskerrik beroenak emongo neuskizuz.

—Ba, gaurko Euskal Herria ez da lehenagokoa. Aurrerakada handia bota dau gauza batzuetan baina atzetantz ere egin dau gauza baten baino gehiagotan.

—Atzerantz non eta zelan? —itandu eustan—.

—Ba, esate baterako, Euskal Herrien, euskera baino erdera gehiago egiten da eta lehenagoko ohitura zahar eta eder asko galdu egin ditugu. Gainera, azken urteotan erbesteko ohiturak gehiago egiten deuskue eta geure nortasuna galtzeko arriskuan gagoz.

—Zer dinostazu? Egia ez da izango esan deustazuna! Baina, baina... Euskal Herrian euskerea galdu? Zer arraio jazo jatzue ba?

—Ba, bai, egia da, eta orain ez gagoz hain txarto, berrero hasi gara euskera eta ohitura zaharrak indartzen.

Euskerea bera ere, ardiak mendiak zehar lez, zabal ibili da eta batu egin nahi deuskue baina beleak beti bere haitzera jotzen dau eta hor gabiltz batzuk era batera beste batzuk bestera ahal dana egiten. Dana dala, urak berez-berez etorri beharko dabe euren erre-kara, bestela, euskerearenak egin joan!

—Harritu egiten nozu! Hori holan bada, bestela gagoz hemen! —Ba, bai, aititak eta, kontatzen deuskuezan gauzetatik, Euskal Herria asko aldatu dana argi ere argi dago.

—Eta gu zer? Inork gogoratzen gaitu?

—Ba, askok eta askok ez, baina baserritar zaharrak oraindino bai. Eurei esker bagagoz han hor hemen banakaren batzuk zuen barri jaso eta idatzi ere egiten dogunok. Batzuk ikerketa mailako liburuetan aipatzen zaituee, beste batzuk osterara ipuin liburuetan.

Lehenago sutondoetan kontatzen euskuezan zuen kontuak baina orain ez dago sutandorik ez ipuinik.

Gaur zuen kontuak liburu, irrati, zine eta telebistaren bidez ezagutzen dira eta hor gabiltz batzuk baserrikerik baserri eta itxas bazterrik itxasbazter dagoan guztia jazotzen eta era dan lez idazten Euskal Herri barriak, zaharra ahaztu ez daian.

—Dinostazun guztiagaz zer pentsatu ez dakidala jartzen nozu! Zure birraititak eta, begiak zabalduko balebez zer esango ete leukie?

—Ba, aitearenka hasiko litzakiguz eta errezoiz guztiarekin gainera!

—Bai, mutil, bai! Zaindu eizue Euskal Herria eta ez eizue zeuon nortasuna galdu. Euskereari ekiozue “min bako arrana ugerrak jaten dau eta”.

Egonak egonda, etxera etorteko ordua egin jatan. Danak agurtu nebazan eta pozarren joan nintzan telebista-etxerantz.

Eguna gautuz etorren eguzkia sartzamendiratuz eta abantean joan arren be, han hor hemengo abemarietako kanpaiotsak entzun nebazan.

Gau-txoriek eta basapiztiek ez ninduen larregirik ikaritzen baina gaueko-arimak ermitarik ermita euren zorrak betatuten ikusteak zer pentsatu emon eustan eta bada ezpada, angelus eta guztiak errezatu eta akordatzako arnasestuan hartu neban telebista-etxea.

Gaineko egunen baten, euskal telebista, irrati eta ipuin liburuetan, ikusi, entzun eta irakurri zeinkie gaurko “exklusiba” berezi hau. Guzurra zein egia, aikorzan euskal sineskerak.



Abantean: Arin-arin, abantzadan.

Aikor: Hara hor.

Aikorzan: Hara hor (plurala).

Ako: Aldi bateko, behinolako.

Akordatzakoan: Akordu barik.

Andariak: Norbait edo zerbait lepoz eroaten dabenak.

Arerio: Kontzako, lagun ez dana.

Atzerikarako: Atzeko aldeko.

Badaukostak: Badaukostazu (zuka).

Bajakik: Badaki (zula).

Bañoak: Banoa (zuka).

Berbalotsa: Berba asko: Batek edo gehiagok.

Beren beregi: Hartantxe, espresuki.


Bestela: Hobeto.

Betatu: Bete, kumplidu.
Burlazar: Adarra joten.
Dariola: Jausten.
Dokan: Dan (zuka).
Donat: Deutsut (zuka, femeninoa).
Egur eskarmentadua sugin ona:
(Esaera) Danerako ondo hezia.
Eleizastiku: Eleizarako joera
daukana.
Endemoniño: Handia.
Epertagi: Eperdian argi egiten dauan
piztia.
Eragoion: Ekiten eutsan.
Ezebezean: Ezer be barik.
Gaineko egun baten: Gaurtik
edozein egunetan (urrun barik).
Gainetiko: Gainontzeko.
Gainetu: Gainera etorri.
Galtzu-zuzia: Gari-eskutea sutan.
Gaulendia: Ilunabarra.
Gedarrez: Zarataka.
Goiak eta beheak jo: Oso haserre
egon.
Goitik-behetik: Eukiarren.
Goruetan: Liño edo lanazko hari edo
firua egiten.
Cureztala: Nahi ez dala.
Hagea: Euskal izakera edo tradizioa.
Haronakoa: Hara eta honakoa.
Heidak: Egidazu (zuka).
Heistak: Egistazu (zuka).
Hoa: Zoaz (zuka).
Igurdi: Igurtzi.
Jasa: Itxura.
Jeguazan: Daiguzan (zuka).
Jeustiezan: Eustiezan (zuka).
Joat: Dot (zuka).
Jonat: Dot (zuka, femeninoa).
Kakadario: Kaka dariola, bildurti.
Lanparra: Lanbroa, sirimiria.
Letxe: Lez.
Maskelua: Lehenagoko esnea
egosteko tresna.
Mundurik aramaio: (Esaera) Hortik
zehar.

Nahastean: Batera.
Naioan: Neban (zuka).
Nintzoan: Nintzan (zuka).
Niñoan: Ninduan (zuka).
Nokan: Nozun (zuka).
Ñatzu: Naz (zuri).
Ñengoala: Nengoala (zuka).
Ñenkian: Nenkian (zuka).
Ñeunkan: Neunkan (zuka).
Ñeunkezak: Neunkez (zuka).
Ñeuntziezan: Neuntziezan (zuka).
Ñoan: Neban (zuka).
Ñoazan: Nebazan (zuka).
Odolak ur egin: Sustu handia hartu.
Ola: Burdina lantzeko lantegi
zaharra.
Onkote: Ona.
Orpoetan ar barik: Arin-arin.
Pipiladurea: Narrua oilo-narrutzea.
Prakagorriak: Inpernuko deabruaren
lagumtzaileak.
Prakak soltetan: Kaka egiten.
Sandies: Erderatikako esaera.
Sartzamendia: Horizontea.
Seguru: Antza.
Sorots egin: Zelatan egon, bigilatu.
Temosokeria: Oztopo asko imintea.
Tragastu: Tragasa errekatik erabili
(Tragasa: Lurra lantzeko tresna).
Txirripiztada: Txipristina, zipristina.
Txuria gora: Zuria gora (Zuria:
Esnea).
Uxo: Eskapari.
Zaran: Zimintzezko zestoa.
Zeinakio: Zer egin ez dakiala.
Zelanbeist: Zelan edo halan.
Zerrariak: Antzinako oholgileak
zerra edo trontzea bitarteko.
Zoan: Zan (zuka).
Zoazan: Ziran (zuka).
Zubiginen: Zubia egiten.
Zutunik: Zutik, tente.

AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	5
BIZKAITZ.....	9
BALTZOLAKO SUGEA.....	37
GARBITXU BIZKAITZ-ENEAN.....	63
EUSKAL SINESKERETAN ZEHAR.....	83



*Urak handi itxasoan
zuhaitz ugari basoan
BIZKAITZ bizirik bizi dagigun
euskal bizitza osoan.*



Juan Manuel Etxebarria Ayesta, Zeberiokoa, 1948 - XI - 2an jaioa dogu. Filosofiararteko ikasketak egin ondoren. Derioko Seminarioan, Magisteritza egin euskun. Karrera barria zabalduz batera, Euskal Filologian lizentziatu jakun

Deustuko Unibertsitatean, ohorezko matrikula ateraz. 1988tik "Cum Laude" eta guztizko doktorea dogu Euskal Filologian "Zeberio-haraneko euskeraren azterketa etnolinguistikoa" ikergaiaz.

Gaur egun, Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedratikoa da eta Deustuko Unibertsitateko euskal Fonetika eta Fonologiako irakasle doktoraduko kurtsoa be azaltzen daualarik. Hamabost urteokaz, On Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapeko Bizkaiko ETNIKER taldekidea dogu. Euskeraren aholku batzordean be parte hartu dau eta Derioko Udako Ikastaroan be euskera bizia aztertzeke oinarriak eta metodologia irakasten dario.

Guzti honen ondoren, idazlea be badogu. Batez ere hiru arlo landu ditu: euskal linguistika, etnografia barruan etno-testoak eta ipuingintza Bizkaiera gaurkotuan.

Ipuingintzan asko idatzi deusku, (dozena bat liburutik gora) batez be gaztetxuentzat eta idazten daragoio.

Lehendik be bai, baina batez be doktorengo tesia burutu dauenetik, argi be argi ikusi dau euskera biziak daukan garrantzia euskeraren etorkizunerako. Euskalkiak bizi dira eta jakina, Bizkaiera be bizirik dago bere aberastasunean.

Liburu honetan be, Juan Manuelek (Manuk) BIZKAIERAREN EDERRAri daragoio denodu guztiaz, "Bizkaitz"en sustrai sendo, eder, sakon eta zabalak jasoz eta bideratuz etorkizuneko batasunaren bidean.